



ARGIA

SAIOA ALKAIZA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako irabazlea

***“Zorionez, gaur egun
badira bertsolari
izateko mila modu”***

14-19. orriak

#2.759 | 2021 / 12 / 19 | 3,90 €



**Burujabetza
eta geopolitika
Kosovon**

26 | NAZIOARTEA



**Zozketa bidezko
asanbladetan antolatuko
balitz demokrazia?**

36 | ARANTXA MENDIHARAT



**“Epika guztiek
behar dute
publiko bat”**

44 | IUXUE APAOLAZA



BABESTU INDEPENDENTZIA

Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 21 | ANA MENDIA
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | BEÑAT MUGURUZA
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | ITZIAR MORENO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
JOSE LUIS GARCIA
- 54 | BERANDUEGI



ASIANA

10 | NET HURBIL | INDIKO BASERRITARREN GARAIPENA

Pello Zubiriak azaldu du aurtengo langile borroka handiena nola eraman duten aurrera Indiako laborariek, eta nola lortu duten gobernuak hiru lege atzera botatzea. Bidean kide asko galduta.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | SAIOA ALKAIZA

**“Heroismoak gehiago
konektatzen zuen garai batean,
baina niri populista egiten zait”**

Ander Perez

26 | NAZIOARTEA

**Soberania,
erabakitze eskubidea eta
geopolitika Kosovon**

Asier Blas

32 | KULTURA

Igorlerik gabeko usoak

Ruben Sanchez

36 | POLITIKA | ARANTXA MENDIHARAT

**“Interesgarria litzateke
ikustea herritarren
asanblada batek
zer neurri hartuko
lituzkeen COVID-19ari
dagokionez”**

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | UXUE APAOLAZA

**“Ez dut nire
pribilegioen biktimez
mozorrotu nahi”**

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta,
Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaitza taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Zerutik eroria bezala

Urpean geratzeko arriskua duten eremuz josita dugu Euskal Herria. Ezer arrarorik ez. Areago, 21 egun jarraian ilargia eta eguzkiaren izpien partez, euria besterik jaso ez dugunean. Eta bai, uholdeak ere gertaera naturalak dira. Naturaren partekoa ez dena, aldiz, bizi gaituen porlanaren diktadura da. Zementuak ia dena estali du, baita ibilguak desbideratu, errekek lurperatu edota ibaien alboan goiti-beheiti eta ezker-eskuin eraikitzearen arduragabekeria ere. Klima aldaketak kezkatzen ei gaitu orain, baina ez lurralde antolamendua eraldatzeko bezainbeste. Mirari baten zain egon beharko, antza. Irudian, Elgoibarko Altzola.

 GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS  AXIER LOPEZ



Lehen mailako arretako osasun-kontsultak atzeratuko ditu Eusko Jaurlaritzak

ERREDAKZIOA

Aparteko larritasunik ez duten" kontsulta guztiak atzeratuko ditu Osakidetzak, lehen mailako arretan. Hala iragarri du Eusko Jaurlaritzak joan den astean, Covid-19a dela-eta osasun sistema jasaten ari den tentsioa "izugarri" igo dela nabarmenduz.

Covid-19aren datuak "inoizko txarretarikoa" direla eta karga horri erantzun ezinik, Osakidetza eragina izango duela ohartarazi du Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak. Ebakuntza kirurgikoak mugatu zituztela esana zuten jada, orain gehitu dituzte lehen mailako arretako kontsultak, eta eritasun kronikoen kontrolerako hitzorduetan ere bertan behera utziko dituzte. Analitikak ere murriztu egingo dira.

Kontsultaren zain dauden herritarrei zuzenduta, Sagarduik esan du ez haste-ko osasun zentrora deitzen, Osakidetza deituko diola jendeari, bere kontsulta bertan behera geratu bada.

UMEEN TXERTOAK, ONARTUTA

Bestalde, Espainiako Osasun Publikoko Komisioak onartu du 5 eta 11 urte bitarteko umeei Pfizer txertoak jartzea.

Bi dosi izango ditu eta ez da disolbatu beharrik izango. Abenduaren 13an jasoko ditu Espainiako Gobernuak lehen 1,3 milioi dosiak. Modernak ere prest du umeentzako txertoa eta Europako Medikamentuen Agentziak argi berdea ematearen zain dago.

Osakidetza abenduaren 15ean hasiko du 5 eta 11 urte arteko haurren txertatzea. Lehenengo, 11 urtekoekin hasiko da

Berria jakin ostean etorri da Jaurlaritzako Osasun sailburuaren iragarpena: Osakidetza abenduaren 15ean hasiko du 5 eta 11 urte arteko haurren txertatzea. Lehenengo, 11 urtekoekin hasiko da, eta adinean hortik behera egingo du.

Ipar Euskal Herriari dagokionean berri, abenduaren erdialdera bestelako gaixotasunak dituzten 6-11 urte bitarteko haurrentzat txertatzeko aukera

zabalduko dela iragarri du Frantziako Gobernuak, eta haur guztiei hurrengo urte hasieran zabalduko zaiela aukera, oraindik medikamentuen batzordeen oniritzirik publiko egin ez bada ere.

COVID ZIURTAGIRIARI KONTROL ZORROTZAGOA

Seigarren olatuaren aurrean, Frantziako Gobernuak Osasun eta Defentsa Kontseilua bildu du abenduaren 6 eguerdian eta neurri murriztaileak ezarri dituzte bertan, Jean Castex Frantziako lehen ministroak eta Olivier Veran Osasun ministroak jakitera eman dituztenez.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan uneoro maskara jarrita egon beharko dute ikasle eta langile denek -gela barruetan zein patioan kanpoan-. Jantoki garaian neurri bereziak hartu beharko dituzte ikasleen arteko gurutzatzeak saihesteko eta hiru kutsatutik gora dauken ikasgelak itxi egingo dituzte.

Castex-ek enpresei dei egin die astean 2-3 egunean telelana ezarri dezaten eta iragarri du funtzionarioek astean hiru egun egingo dituztela etxetik. Neurri hau ez da derrigorrezkoa, enpresarioei egindako aholkua baizik.

Urte bukaeran egiten diren enprestatoko bilkura eta ospakizunak saihesteko eskatu dute.

Ostalariei eta kultur zein kirol ekitaldien antolatzaileei eskatu diete "zorrotzago kontrolatzeko" osasun pasea, lan hori egitea dagokiela azpimarratuz. "Kontrol gehiago egingo ditugu guk ere, baina komeni litzateke jendeak birusarekiko beldurrez jokatzeko eta ez gendarmeei beldurrez".

Osasun paseari buruz, esanguratsua da indarrean hilabeteak badaramatza ere, kutsatzeen datuak egun nabarmen handiagoak direla orain urtebete pasarik ez zenean baino.

Dantzalekuak itxi dituzte abenduaren 10ean lau astez. Castexek honela argudiatu du neurri hau: "Birusa asko dabilelako gazteen artean eta espazio hauetan zaila delako babes neurriak betetzea". ●



Osakidetza langileak murrizketengatik protestan, pasa den udan.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Alde egiteko



ARITZ GALARRAGA

Antza ez gara euskaldunok elkarrekin eta elkarren ondoan ibiltzen garen bakarrak. Natalia Ginzburg ere Torinotik kanpo elkartzen zen torinoarrekin Torinori buruz hitz egiteko. Kontua izan daiteke, hartara, zertarako baino, zer gogoalderetarekin elkartzen garen: “elkartu eta gure hiriaz hizketan hasten garenean, ez zaigu damugarri hura utzi izana, eta esaten dugu orain ezinezkoa litzaigukeela han bizitzea”, dio une batean; esateko gero, “hemen, gure etxean, gure hirian, gaztaroa eman genuen hirian, jada gauza gutxi baitugu bizirik, eta hamaikatxo oroitzen eta itzalek egiten baitigute harrera”. *Bertute txikiak* izeneko liburuan bilduta dago testua, eta osorik da testu ederra, hildako lagun Cesare Pavesearen omenez idatzitakoa. Barbiturikoak hartuta hil zen laguna, berrogeita bi urterekin, bakarrik, heriotza etorri eta zure begiak izango zituela idatzi zuena. Torinoren antza zeukan, gainera: “Gure hiriak (...) antz handia du bera maite-maite zuen eta orain galdu dugun laguna-rekin; maratza da, bera bezalatsukoa, beltzuria bere maraztasun suhar eta setatsuan, eta, aldi berean, geldoa eta prestua nagitasunean eta ametsetan aritzeko”.

Etxeaz, hiriaz, gaztaroaz ari garela, liburua euskaratu duen Irene Saratxo de Hurtadok berak, beste bide batez bada ere, oparitu zidan Pavesearen beste definizio hau, *La luna e il falò* eleberriko protagonistaren ahotan jarri zuen sorterriaren definizioa: “Herrialde bat behar da, alde egiteko besterik ez bada. Herrialde batek esan nahi du ez egotea bakarrik, jakitea jendeagan, landareetan, lurreen badagoela zure zerbait, zu ez zaudenean ere zure zain geratzen dena”. Herrialde horren falta sentituko zuen Pavese agian Torinoko hotel hartan bere buruaz besta egitea erabaki zuenean. Baina oso-osorik tatuatzeko moduko definizioa iruditzen zait. Edo, akaso, azal nahikorik ez, luzeegi, eta lehen esaldia bederen: “Herrialde bat behar da, alde egiteko besterik ez bada”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Erraustegia

200 langileko kooperatiba batek Bergaratik joatea erabaki du Valogreene-k bertan ezarri nahi duelako hondakinen planta. “Paper-industriaren hondakinen tratamendurako planta ezarri aurretik, jada eragin dio kaltea herriari”, adierazi dute.

Sokarros

Allande Sokarros Estekondo (Etxebarre, 1957) kazetari, itzultzaile, idazle, militante, hautetsi eta euskaltzain urgazlea hil da joan den astean. Hainbat hedabidetan parte hartu izan du, tartean ARGIA. Zenbait liburu ere idatzi ditu.

AEB-Txina

AEBek boikot diplomatikoa egingo diete 2022ko Pekingo Neguko Olinpiar Jokoei, Txinako Gobernuak egindako “genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak” argudiatuta. Txinak irmo erantzun du: “AEBek ordaindu egingo dute boikotagatik”.

Tapia Legea: udalek ezingo dituzte gelditu Jaurlaritzaren proiektuak

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Goi-mailako interes publikoko proiektuen inguruko erabakimena udalei kendu eta Jaurlaritzari ematen die Arantxa Tapiaren sailak aurkeztu duen Ingurumen Administrazioaren Legeak. Jaurlaritzak erabakiko du proiektu bati izendapen hori ematea ala ez. Udalerriek ezin izango dituzte beren hirigintza planen aurka doazen egitasmoak geldiarazi. Azken hilabetetan hainbat udalerririk bota dituzte atzera Jaurlaritzaren proiektuak.

Ez zen ezustekorik izan Gasteizko Legebiltzarreko joan den asteko osoko bilkuran. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak Ingurumen Administrazioaren Legea defendatu zuen. Bozka emateko orduan, EAJ-PSEk bere gehien-go absolutua baliatu zuen legea onartzeko. EH Bildu, Elkarrekin, PP eta Voxek aurka bozkatu zuten.

JOKO-ARAUEN ALDAKETA

Ingurumen Administrazioaren Legea onartzeak Lurralde Antolamenduaren Legearen 3. artikulua moldatzea dakar, eta hura da arreta puntu nagusia. Jaurlaritzak figura berria sortu du, "goi-mailako interes publikoko" proiektuena. Jaurlaritzak erabakiko du proiektu

bati izendapen hori ematea eta, emanez gero, hura onartu edo debekatzeko eskumena udalerriei kendu eta Jaurlaritzari eman diote EAJ-PSEk. Joko-arauak irauli dituzte: 1990etik, edozein proiektuk udalerrien baimena behar zuen eta beren hirigintza planetara egokitu behar zuen; onartutako moldaketarekin, udalerriak izango dira beren araudia Jaurlaritzak erabakitako proiektuetara moldatu beharko dutenak. Mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk, udalerrien iritzia jasotzeko prozesu bat egin bitartean legea ez tramitatzeko eskatuz. Mikel Otero legebiltzarkideak salatu zuen azken 30 urteeko botere banaketa "lehertu" nahi dutela EAJk eta PSEk.

UDALETAN GALDUTAKOA JAURLARITZAN IRABAZI

2020ko abenduan Gasteizko Armentia-2 putzuan gasa dagoen ikertzeko baimena ukatu zion Jaurlaritzari Gasteizko Udalak, edo, Zaldibarko hondakindegiairen krisiaren ostean, zabortege berriak beren lurretan irekitzeko asmoak gelditu dituzte Lezama eta Azkoitiko udalek, besteak beste. Arantxa Tapiak legebiltzarrean iragan agerraldi batean onartu zuenez, bultzatzen duen aldaketak lotura du horren moduko gertaerekin.

"Nimby efektua" ("Not in my backyard", "Nire etxe ondoan ez") saihestu beharra defendatu du, beharrezkoak omen diren baina inork ondoan nahi ez dituen proiektuei aipamena eginaz.

ABIADURA HANDIKO LEGEA

Jaurlaritzak eztabaida gutxien ahalbidetzen duen bidetik sustatu du hain sakoneko eraldaketa. Lege proiektu bat aurkeztu ordez, adibidez, emendakin forma eman dio lege aldaketari. Ingurumen Administrazioaren Legeari 100 emendakin baino gehiago egin zizkion Jaurlaritzak ekainean, eta 61.ak jasotzen du aipatu proposamena, Lurralde Antolamendu Legearen 3. artikulua aldatzeko eskatzen duena. Bide azkarrena da emendakinena, eta horrez gain, oposizioak salatu du Jaurlaritzak legebiltzarrean araudia "bihurritu" duela prozesua are gehiago azkartzeko.

EUDEL, MUTU

Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen arabera, 2016koa, lege batek udalerrien eskumenei eragiteko arriskua badu Eudel Euskadiko Udalen Elkartek batzorde bat osatu eta txostena egingo du hura aztertzeko. Ordea, Ingurumen Administrazioaren Legea lege-proiektu fasean zegoenean jaso zuen Eudelek: orduan ez zegoen 61. emendakina aurkeztua, eta udalen elkarteak ez zuen beren eskumenen aurkako edukirik ikusi. EH Bilduko hainbat alkatek salatu dute lege aldaketa. "Udalen eskumenak ezbaian jarriko badira ere, udalei ez zai- gu hitzik eman. Gure sistema instituzional konplexuaren eskumen-banaketa aldatu nahi dute, toki-erakundeei galdetu ere egin gabe". EAJk eta PSEk gehiengo dute Eudeleko exekutiban.

INGURUMENA ERDIGUNEAN

AHTaren eta parke eoliko eta fotovoltai- ko erraldoien aurkako ekimen herritar- rrak batzen dituen Araba Bizirik Plata- formak mobilizazioak egin ditu "Tapia Legea"-ren aurka. Lege berria onartzeak oro har demokraziari eta bereziki ingu- rumenaren aurkako proiektu erraldoiei eragingo liokeela salatu du. ●





%1,3

hazi zen munduan armen salmenta, COVID urtean. Alegia, koronabirusak ez zuen 100 ekoizle nagusien armen salmenta gelditu, alderantziz, 2020an %1,3 handitu zen, Stockholm International Peace Institute-n datuen arabera.

+

12

urtez Donostiako apezpiku izan ostean, kargua utzi beharko du José Ignacio Munillak, Frantzisko aita santuak Orihuela-Alacanteko apezpiku izendatu duelako. Polemika ugari eragin ditu urteotan, feminismoarekin eta LGBTI komunitatearekin sartzeagatik, besteak beste.

5

euskal preso Euskal Herriratuko ditu Espainiako Gobernuak, Jaurlaritzarekin koordinaturik: Lexuri Gallastegi, Zigor Blanco, Gorka Lupiañez, Jose Maria Novoa eta Ion Troitiño.

“DATOZKIGUN ASTINALDIAK BIZIRIK GAUDEN EUSKALDUN GEHIENOK INOIZ EZAGUTU EZ DITUGUN DIMITSIO ETA INTENTSITATEKOAK IZANGO DIRA ETA HORIEI HERRI GISA BATURIK SOILIK AURRE EGIN AHALKO DIEGU”

“Frantziako eta Espainiako estatuak ez daude prest euskararen berreskurapen eta normalizazio osoa gerta dadin uzteko. Ez daude prest euskaldunok normaltasunez euskaraz bizi ahal izatera irits gaitezen”

“Burujaibetza osoa eskuratu behar dugu ezinbestean. Euskararen Errepublika independentea eskuratu behar dugu. Soilik horrela lortuko dugu Euskal Herri euskalduna berreraikitzea”



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Manifestazioa antolatu zuten Durangon, “Euskaraz bizitzeko, Euskararen Errepublika” lelopean.

2021-12-06

Bertsotan



ULA IRURETAGOIENA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean, gure memorian txertaturik gelditu da egunkariek aurkeztu zuten irudia, Saioa Alkaiza txapeldun berriaren eta Estitxu Arozenaren arteko besarkada. Arkitektoaren begiradak Anaitasuneko eszenatokian jarriko du atentzioa; bertsolarien gibeletako grafikagintza koloretsuan, eserlekuen diseinuan, argi-fokuen erabileran, zoruaren materialean... Baina begirada zorroztean, agian oharkabean igaro den xehetasun bat antzeman dut: bertsolarien mikroko publizitatean ageri den marka eraikuntza material saltzaile ezaguna.

Eraikuntza material denda hau hiri-aldirietako zentro komertzialetan egon ohi da, tamaina handian, etxearen eraikuntzarekin harremanean den material zerrenda zabala eskuragarri –zementu eta isolatzaileetatik hasita lorategi eta komuneko osagarrietara–, eta prezio merkeak ziurtatzen ditu.

Denda barnean, gizonezkoak nagusi dira; iturginak, elektrizistak... Eraikuntzan diharduten gremioak maskulinoak baitira. Hona hemen proletargo maskulinoaren azpi-mundu bat. Gizonaren zereginekin batera emakumezkoak erakartzeko, etxearen dekorazioko objektuak daude, Suediako marka ezagunaren diseinu gabeko alternatiba bat.

Eraikuntzako profesionalez gain, brikolajearen maitaleak aurkitzerik bada. Brikolajea gurean ez dago oso zabalduta, Frantziarekin alderatuz. Norberaren eskuekin etxeko txoko bat atontzeko grina duenak profil kuriozoso badu, dirua aurreztetik haratago gozamen aktibitatea baldin bada. “*Do it yourself*” etxeko honetan dabilenak, eraikuntzako lardaske-riak direla esango du garrantzia gutxituz, baina autoezagutza ariketa sendoa da, jakintza kolektibotik xurgatzen duena eta bertsotan aritzen da eraikitzen.

Ekitaldi baten publizitateak ez du zertan ekitaldiaren ideologiarekin bat egin, diru-iturri bat izan daiteke. Akaso bertsolaritarik urrutitu sentitu daitezkeen “horietara” iristeko tresna bilakatu da, edo agian ez du inork honetan pentsatu. ●



Greba orokorra, lehenago edo geroago

URKO APAOLAZA AVILA

Euskal Herrian greba orokor bat antolatzeko aukera mahai gainean izan da azken hilabeteotan sindikatuen artean. LABek mahairatu zuen lehen aldiz, Maiatzaren Leheneko ekitaldietan, halako mobilizazio bat egiteko beharra, eta ELA ez zuen ezezkorik esan. Arrazoiak soberan daude bi sindikatuontzat: pandemiaren ondorioz hartutako neurri ekonomiko eta sozialei buelta emateko premia, zerbitzu publikoak indartzea, Espainiako lan eta pentsio erreformen torlojua askatzeko ahalegina, Europako funtsen itzala... Baina greba egiteko unean eta estrategian huts egin du elkarlanak.

LABek azaldu duenez, bere asmoa deialdia lehenbailehen egitea zen, Euskal Herriko eragin-eremuan kokaturik “bide propioa” hartuta, eta bere esanetan ELA data hori atzeratzen joan da “Madrilgo jokalekura eta agendara” begira egon delako, “une egokiaren zain”. ELAren arabera, ordea, LABek uko egin dio grebari, eta “akatsa” deritzo horri, “orain Madrilen dauden euskal alderdiak, EAJ eta EH Bildu, presionatzea dagokigulako”, azaldu du Radio Euskadin Mixel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak.

ELAren kritika ez da LABengana soilik zuzendu. Lakuntzak oso gogor hitz egin du EH Bilduk espainiar aurrekontuak babestearen aurka, “EAJren eredu ekonomiko eta soziala onartu duelako”. Hala, bere ustez, Espainiako Kongresuan datorren asteetan onartu nahi den lan erreforma dela-eta EAJk eta EH Bilduk hartuko duten jarraitzearekin adi egon beharko lukete euskal sindikatuak, “bertako hitzarmen kolektiboak lehenesteko hitzarmen estatalen aurrean”.

Hori litzateke ELAren greba orokorra egiteko “une egokia” –LABen hitzak erabiliz–. Baina, akaso une egokirik behar ote du greba orokor batek? Euskal Herrian deitu zen azken lanuzte handia 2020ko urtarrilaren 30ekoa izan zen, eta orduan patronalak eta erakundeetan agintzen dutenak grebarako “nahikoa arrazoi” ez zegoela adierazi zuten, ohi duten bezala. Baina egin, egin zen, prekarietatea, soldata arrakala eta pobrezia kontra “estutzeko garaia” zela ikusi zelako sindikalgintzatik.

Duela urtebete argitaratu zen EHUKo ekonomialarien ikerketa batek ondorioztatu zuen greba tresna ezinbestekoa dela “kontraboterean” dauden ELA, LAB eta antzeko sindikatuentzako; mobilizazio soila baino, langileen ahalduntzea eta “antolaketa sakonagoa” ekartzen duelako, eta sindikatuak indartzen dituelako –ikerketa horren arabera, grebak egiten Europako txapeldunak omen gara–. Horri heldu beharko diote bi sindikatuak bai ala bai, lehenago edo geroago. ●

TEKNOLOGIA

Hezkuntza digitalizatzeko printzipioak



DIANA FRANCO

Hezkuntzaren digitalizazioaz hitz egi-terakoan kaleko pertsonok bi gauza ezberdin ulertu ohi ditugu: alde batetik, enpresen digitalizazioaren antzeko prozesu bat, non pertsonen eta informazioaren arteko harreman prozesuak digitalizatuko dituen sistemak garatuko diren eraginkortasuna bilatze bidean. Bestetik, ikasleen konpetentzia digitalak garatuko direla ulertzen dugu.

Lehenengo irakurketa batean, esanda-koak onuragarriak direla dirudi, baina ez da horrela. Hezkuntzaren Digitalizaziorako sistemak eta azpiegiturak ez ditu Eusko Jaurlaritzak garatzen, eta horrek, gure ikasleen pribatutasuna eta etorkizuna korporazio handien negozio ereduaren eraginetara ahulagoak bilakatzen ditu. Bestalde, konpetentzia digitala zertarako, noiz eta nola hobeto pentsatu beharrean gaude. Erabiltzaile izaten gero eta errazago ikasiko baitute ikasleek, interfazeak intuitiboagoak bihurtuko diren heinean. Baina idazteko gaitasunean, ulermen gaitasunean, abstrakzioan, memorian, pentsamendu kritikoa... garapen on bat lortzeko ofimatika, learning analytics sistemak-eta erabiltzea baliagarria izango ote den oraindik ez dago hain argi.

2021eko abenduaren 10ean, gai hauetaz arduraturik dagoen Hezkuntza Librezale taldea gonbidatua izan zen Eusko Legebiltzarrerara. Digitalizazioari lotuta EAEko hezkuntza legeak izan beharko lituzkeen printzipioak Iñigo Gebara irakasleak azaldu zituen: Pribatutasuna eta datu-babesa bermatuko duen digitalizazioa; gaitasun digital zabal eta osoa sustatuko duen digitalizazioa; euskara ardatz izango duena; ekologikoki jasangarria; eta ongizatea eta ikasleen bizi-kalitatea bermatuko dituen.

Gizarteak eraldatzeko digitalizazioak duen gaitasuna dela eta, hezkuntza legeak digitalizazioaz hitz egin behar du. Aipaturiko printzipioak kontuan hartzeak digitalizazio euskaldun, arduratsu, burujabe eta jasangarri baten oinarriak ezarriko lituzke, Hezkuntza Librezale taldearen hitzetan. ●

NAZIOARTEA



Salbuespen beharra

AXIER LOPEZ

Herriarren 2019ko matxinadaren ondoren, etengabe ari da aldatzen Txile. Erregimen zaharrak ez du hil nahi, berriak ernatu nahi du, eta talka horretan, garai bertsuetan gerta daitezke honelako gauza kontrajarriak: batetik, konstituzio berria, inklusiboagoa, idazten ari dira maputxe batek gidatuta, eta bestetik, bi hilabete bete dira gobernua maputxek lurraldeetan larrialdi egoera ezarri eta militarrek bidali zituenetik. Dualtasun hori datorren igandean, hilak 19, helduko da mugari gorenetakora: ezkerrek eta ultraeskuinak elkar ikusiko dute hautestontzietan herrialdeko presidentetza eskuratzeko. Bien bitartean, baina, herri mugimenduek urte luzez bultzatutako aldaketa batzuk gauzatzeko ari dira, urrats historikoak ematen jarraitzen dute.

Joan den astean ezkontza parekideak legeztatu du Parlamentuak -82 boto alde eta 20 aurka-. Ia lau urtez baztertuta izan dute 2017an aurkeztutako proposamena, eta hara noiz eta sektore kontserbadoreen ordezkari Sebastian Piñera eskuindarraren agindupean onartu den. Sexu bereko pertsonen ezkontzako aukera ematen die lege berriak, eta gainera, alab semeak adoptatzeko aukera bermatzen du - hori izan baita eztabaidaren funtsezko puntuetako bat-.

Eta bai, gezurra dirudi gaur egun sexu bereko bi pertsonak legearen aurrean eskubide berberak ote dituzten eztabaidatu behar izatea. Baina, ikuspegia zabalduz gero,

berdintasunak salbuespena izaten jarraitzen du gaur gaurkoz. Txile da berdinaren arteko ezkontza legeztatu duen hamargarren herrialdea Amerikan; Argentina, Brasil, AEB, Kanada, Kolonbia, Uruguai, Ekuador, Mexikoko hainbat estatu eta Costa Ricaren -Erdialdeko Amerikako herrialde bakarra, 2020an onartu zuten- ondoren.

Danimarka aitzindaria izan zen 1989an bikote homosexualen lehen elkartzeko zibilak baimentzen. Herbehereak izan ziren lehen herrialdea, 2001eko apirilean, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legeztatu zuena, eskubide gehiago emanez. Dena den, sexu bereko pertsonen arteko harremanak lege onartzeko aukera ematen dute NBEko 193 estatu kideetatik soilik 28k, Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkartearen (ILGA) 2020ko txosten baten arabera. Afrika bezalako kontinente oso batean, Hegoafrikan bakarrik (2006tik) da legekoa. Asian ere egoera beretsua da, Taiwan da salbuespena. Aldiz, sexu-askatasuna delitutzat jotzen duten herrialdeak askoz gehiago dira oraindik orain -ILGAren txostenaren arabera, NBEko 67 estatu kide-. Are, G8-ko bi potentziak, Japoniak eta Errusiak, debekatuta daukate.

Txilek berretsi duen bezala, XXI. mendean ere, herriarren presioak eta mobilizazioak jarraitzen dute izaten oinarritzko eskubideak lortzeko biderik eraginkorrenak. ●

600 HERIOTZA ORDAINDUZ, INDIAKO BASERRITARREK IRABAZI DUTE NEOLIBERALISMOAREN AURKAKO 2021EKO GREBA HANDIA

Azarotik azarora, urtebete eman dute greban eta mobilizaturik Indiako milioika nekazarik, Narendra Modiren gobernuak laborantzako prezioak eta merkatu osoa liberalizatzeko ezarritako hiru lege atzera botatzea eskatuz. Azkenean agintariek erabakietan atzera eginda, borroka eta sufrikario askoren buruan, munduak 2021ean ikusi duen langile borroka sendoenak helburua lortu du.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Azaroaren 19an Indiako lehen ministro Narendra Modik ozenki adierazi zien nekazariari eta herriar guztiei: “Gaur zuei, herrialde osoari, esatera etorri naiz hiru nekazaritza legeak kentzea erabaki dugula. Hilabete honetan hasiko den Parlamentuko saioan, hiru nekazaritza lege hauek indargabetzeko prozesu konstituzionala amaituko dugu”. Eta ondoren erregutu zien urte bete protestan eman duten nekazariari: “Orain, itzul zaitezte zuen etxeetara”.

Otsailean orriotan Jenofa Berhokoirigoinek eman zuen 2021eko munduko gertakizun nagusietakoa izango zenaren aurrerapena: “Iazko azaroaren 26an ukan genuen Indiako laborarien aldarrikapenaren berri, 250 milioi laborari eta langilek jarraituriko greba historikoari esker: Indiako Parlamentuak bozkaturiko laborantzaren liberalizaziorik ez dute nahi. Egun horretan abiatu zuten New Delhi inguruko kanpamentua 250.000 bat nekazarik, hiribururako zortzi sarrearak blokeatuz. Urtarrilaren 26an, urrats bat gehiago eman eta hiriburuaren bihotzera sartu ziren, otsailaren 1erako parlamentua zutelarik helburu”.

Protestak urtea osatu baino aste-bete lehenago eman du amore Modik, hain zuzen sikhismoak –Sikh jendeen erlijioak– Guru Nanak fundatzailearen jaioteguna ospatzen duen egunean. Kasualitate gutxi, politikarien agendetan:

grebak nagusiki India iparraldeko estatuetakoak mugiarazi ditu, Haryana, Uttar Pradesh eta Punjabekoak, eta azken honetan populazioaren %60 sikh sinesmenduna da. Mobilizazioaren izen ona zikintzeko, grebalarietan gehiengoa ziren nekazari sikhhez Modik esana zuen “anti-abertzaleak” eta “khalistandarrak” direla, Punjaben Khalistan burujabea eraiki nahi duten independentistak. “Hobe horiekin betirako ez etsaitzea”, pentsatu bide zuen Modi zakur zaharrrak, hauteskundeak beti iristen baitira.

Gobernuaren porrotaren albisteak sekulako festa sorrarazi zuen Delhi inguruetan kanpatutako baserritarren eta aldeko jendeen artean, *Die Welt* egunkari alemaniarren berriemaiile Charu Kartikeyak kontatu zuenez: “Suziriak entzun zitezkeen eta musikak. Jendea dantzan, batzuk besteei goxokiak banatzen...”. Alabaina, parlamentuak legeak behin betiko erretiratu arte lekutik ez zirela mugituko iragarri zuten mugimenduen buruzagiek.

Fidagaitz izateko motibo gutxi ez zuten. Nekazariok urte betez atxiki behar izan diote borrokari, gehienak Indiako iparraldeko sorterrietatik oso urrun, aurre eginez mobilizazio luzearen nekeari, eguraldiaren egoskorkeriei eta agintariek jarritako oztopoei, poliziaren barrikada, granada eta ur-kanoiei. Hasieratik mugimendu bakezale aurkeztu zenak klase guztietako bortizkeriak nozitu bai-

titu. Garaipenaren bidean 600-700 hildako utzi ditu, ia denak nekazariak edo horien familietakoak.

Wikipediak xehetasun handiz dokumentatuta azaltzen ditu mobilizazioetan zehar hildakoak. Lehenbizikoa Dhanna Singh izan zen, 45 urteko nekazari buruzagia. 2020ko azaroaren 26an hil zen, hedabideek esan zuten bezala, Haryana estatuko poliziarekin negoziatzen ari zenean errepidean hauek grebalariei bidea oztopatzeko ipinitako barrikada batean. Geroztik, heriotzak ugaritu dira egunetik egunera, aurtengo azaro amaieran batzuen kontabilitatean 600 eta beste batzuenean 750 izatera heldu arte.

ODOL ETA MALKOZ IRABAZI

Biktimen artean izan dira poliziak zuzenean hilak, tiroz edo granadaz bezala haien autoek zanpatuta. Izan dira lisarren beroan beren traktoreek istripuz lehertuak ere. Beste asko hil dira gosez, hotzez edo gaixorik, bihotzeko atakez edo pneumoniaz. Eta izan dira suizidioak ere.

Etsipenak eragindakoak izan dira suizidioetako asko, beren buruak urkatuz edo eskueren zeukaten pozoia hartuz. Zenbaitak bere buruaz beste egin aurretik idatzirik utzi du azken garraiarekin agintariei egindako protesta. 2020ko azaroaren 28an Delhi inguruan semearekin eta bilobarekin batera kanpatuen artean zegoen Kashmir Singhek



GARAIPENA ospatzen du emakume baserritarrek haurra sorbaldan duela, Indian azaroaren 29an egindako elkarretaratze ugarietako batean. Argazkia: Asiana.

komunean bere burua zintzilikatu zuen. Poliziak paper hau aurkitu zion punja-beraz idatzia: “Noiz arte egon beharko dugu hemen hotzetan? Gobernu honek ez du entzun nahi. Horregatik, nire bizia eskaintzen dut konponbide bat sortu dadin”.

Hilabete beranduago, abenduaren 16an Baba Ram Singh sikh apezak bere buruari eman zion tiro, Singhu estatuan barrena hiriburura zihoan karabanen. Hamar orriko idatzi bat utzi zuen adieraziz ezin zuela jasan nekazarien mina. Haren oroimenezko hileta ekitaldian irakurri zuten idatzia: “Fusilen balek soilik hiltzen dituzte haiek jotakoak. Injustiziaren balek, ordea, jende asko hiltzen dituzte kolpe bakoitzeko. Umiliagarria da justiziarik eza sufritzea”.

Ororen buru, ordea, garaipen historikoa lortu dute Indiako nekazariak, haien arazoak asko ikertu dituen Palagummi Sainath kazetariak *People's Archive of Rural India*-n idatzi duenez: “Hedabide nagusiek sekula garbi aitortuko ez duten arren, honakoa izan da azken urteotan munduak ikusi duen garaipen demokratiko eta baketsu handiena, zalantzarik gabe COVID-19 pandemiako handiena. (...) Garaipen bat baino gehiago lortu dituzte. Bat –eta ez txikiena–, dirudunek kontrolatutako hedabideei irabazi diete”.

Sainathen analisisan, nekazariak badakite garaipen handi hau ez dela lehen urratsa baino. Legeak ezabatzearen ondorioz konpainia handiek ez diete, oraingoz, zintzurra lehertuko. Baina

konpontzeko geratzen dira beste zenbait arazo, hasi laborantzako produktuen gutxieneko prezioetatik, segi merkatu publikoetatik eta politika ekonomikoko gai askoz zabalagoetaraino.

“Modiren gobernuak –dio Sainathek– bere aurkariak pertsegitu, zanpatu eta espetxeratu egiten ditu eta agintariei aurre egiten dioten beste mugimenduei arnas berri bat eman diete mobilizatu-tako nekazariok. Gobernuak bere nahieran atxilotzen ditu herritarrak, tartean kazetariak, 2019ko legeen babesean, hedabide independenteak zapaltzen ditu balizko delitu ekonomikoak egotzita. Horregatik egun hau nekazarien garaipena baino gehiago izan da, indiarren askatasun zibilen aldeko borrokaren garaipena”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Saioa Alkaiza

SORKUNTZAREN GOZAMENAREN BIDEA



HEROISMOAK GEHIAGO KONEKTATZEN ZUEN GARAI BATEAN, BAINA NIRI POPULISTA EGITEN ZAIT



Batzuen eta besteen zorionak jasota aritu gara Saioa Alkaizarekin Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan barna, elkarrizketa hau egiteko momentuan. Besteen harrerak lagundu dio lortu berri duena kokatzen. Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi eta astebetera, “liseriketa” eginda dator. Bertsoaz gain, gorputzez, identitateez, ertzez, hegemoniez eta diskurtsoez hitz egitera. Edo, agian, hori dena ere bada bertsoa.

 ANDER PEREZ  DANI BLANCO

Astebete pasata, txapeldunago sentitzen zara?

Bai, sinesten hasi naiz. Lehen hodeietan nengoen, galduago, baina uste dut asimilatu dudala. Zoritxarrez, batzuetan, gure burua kanpo begiradatik ikusten dugunean ohartzen gara gauzekin. Uste dut, oihartzuna ikusita, edo feedbacka jaso dudanean, nolabait autorizatu dudala nire burua, eta pentsatu dut: “Bueno, irabazi dut; ez naiz inor baino gehiago, baina ez naiz inor baino gutxiago ere”.

Eta bertsolariago?

Lehenago ere sentitzen nintzen, baina egia da azken bi urteetan lan handia egin dudala. Horretan eragin handia izan du,

batetik, Ahalduntze Bertso Eskolak, eta bestetik, nire inguruko bertso eskolak, Iruñerrikoak. Onartu diot nire buruari: “Bertsolaria naiz”. Agian tristea da txapel bat jaso behar izatea zure buruari hori frogatzeko, baina uste dut bestela ere sentitzen nintzela bertsolari: txapelketan gustura gelditu naiz, eta final txarra eginda ere sentituko nintzateke. Bidearekin kontent nago; sortzaile sentitu naiz txapelketan.

Ia 20 urte behar izan dituzu honetarako.

Bai. 12 urterekin hasi nintzen, baina hasieran oso jolas modura. Bertsolaria arketipo bat izan da, inguru linguistiko zehatz batekoa, forma, gorputz, eta

pentsaera batekoa. Guk eredu bat jaso genuen, eta kostatu zait nire burua hor kokatzea, ez dut topatu eredu askorik; azken urteetan, askoz gehiago. Eta gus-tatu izan zaizkidan bertsokera hurbila-go asko ere bai. Iruditzen zait bertsoa, historikoki, oso lotuta egon dela egia borobilekin, edo arrazoiketa kategori-koekin. Aldaketa handia egon da: azken Txapelketa Nagusian, adibidez, ikusi zen pertsonaia kontraesankorragoak bila-tzen zirela. Gaietan ere gauzak ez dira a edo b, zuri-beltzek toki gehiago dauka-te. Eta uste dut hori ikusi ahala nik ere balioetsi dudala nire burua. Zorionez, gaur egun badira bertsolari izateko mila modu. Gurea ere beste edozein bezain legítimo da.



Saioa Alkaiza Guallar

IRUÑEA, 1991



12 urterekin hasi zen bertsoan, Antsoingo Ezkaba ikastetxean ikasle zela. Hara joan zitzairen Estitxu Arozena bertsoalaritza irakastera; hain justu, orain, ia hogeitaz urtera, txapelantzi dion bera. Ikasketaz kazetaria, Berria-n eta Euskalerrria Irratian aritu da lanean. Egun, Nafarroako Bertsozale Elkartearen ari da, bertso irakasle. Bera da 2021eko Nafarroako Bertsozale Txapelketako txapelduna.

Zergatik ez zenuen zure inguruan halakorik topatzen?

Batetik, pentsa: txapelketan 30 bat bertsolari bagara, emakumeak zazpi izan gara. Bestetik, Nafarroan, finalean kantatzen zutenak, oso lotuta egon dira inguru oso-oso euskaldunekin. Ni ez nintzen bertakoa sentitzen, nahiz eta euskalduna izan. Ez nituen antzeko pertsonak ikusten; lagun minak bai, baina horiek ez dira iritsi finalera, ez dira fokupean egon. Nire inguruan Sarai Robles edo Irati Majuelo bezalakoak izateak frogatu dit gu ere bagarela batzuk, eta posible zela. Lotuta dago bizilekuarekin, generoarekin, eta baita estiloarekin ere. Guri kostatu zaigu, zeren eta bertsoa ez da bakarrik kantatzen duzun bitartean gertatzen den hori, bertsoa da oholtzara igo aurretik dauden elkarrizketak, eta jaitsi ostean sortzen diren harremanak. Ekosistema horretan kokatzea kostatu zait. Ez dut hau inongo biktimismotik esan nahi: ez naiz inoiz kanpo sentitu, bertsoakide bikainak ditut, eta oso zaindua eta maitatua sentitu izan naiz. Baina falta izan zaizkit antzekotzat neuzkanak.

Gorputzak zer eragin du horretan?

Askotan. Bi gauza guttiz dikotomiko eta kontrajarri balira bezala kokatu ditugu arrazoa eta gorputza. Eta bai, bertsoan ari zarenean ariketa intelektual bat egiten ari zara, baina hor pertsona ere bazara: egon zaitezke urduri, triste, kontent... Psikologikoki lan handia da, espazio publikoa okupatzen duzunean ikusgai jartzen zarelako. Eta esposizio horretara, segun eta nor zaren, ez zara berdina iristen: ez da gauza bera zis gizonetako heterosexual aberatsa izatea, edota beste mila kategoria gorpuztea.

Ahots mota bat ere lotu izan zaio bertsolariaren arketipoari. Ahots sendoa, indartsua, urratu gabea. Nola bizi izan duzu zuk hori?

Ni ez naiz bereziki belarri ona daukan pertsona, ez naiz bereziki ona intonatzaren, ez ditut doinuak segituan harremanatzen. Ahots ona baduzu, presentzia ere aintzat hartzen da. Baina zer da

ahots ona izatea? Zeinenak balioesten dira? Niri, pertsonalki, kostatu zait, eta garai batean izan dut konplexu gehiago. Baina landu dut, eta egin dut ahalduz ariketa bat. Komunikazio ekintza bat den heinean, ahotsa oso inportantea da, baina ahots bat baino gehiago ere izan daitezke baliagarri. Hor nire burua autorizatu dut. Bestalde, lan egiten dut: pasatzen zait bertso eskolan, doinu berriekin; onartzen dut egunean bertan ez dardala doinu hori menperatuko, baina pasako dudala aste bete entzuten. Ez dut etsitzen. Ahotsarena oso lotuta dago autopertzepzioarekin eta segurtasunarekin ere: geroz eta urduriago, orduan eta itxiago zintzurra, orduan eta gehiago nabaritzen da segurtasun falta. Batzuetan ez da hainbeste ze ahots duzun, baizik eta horrekiko zein kokapen hartzen duzun.

Aurreko hiru txapelketetan, finalaren ataritan gelditu zinen. Izan zenuen txapelketaren bidean amore emateko tentaldirik?

Bertsoan oso ongi pasatzen dut, nire zaletasun handiena da. Txapelketetan ez dut emaitza brillanterik lortu, baina bertsoak eman dizkit bizitzako lagun onenetako batzuk, sozializazio espazio handiak, hausnarketa pila bat, lana... Beste mila tokitatik asebeten nau. Aurreko txapelketan somatzen nuen bertso maila onean nengoela, agian urduriago, baina banuen nahia zerbait aldatzeko. Eta amaitu zenean neke handia etorri zitzaidan. Iruditzen zait bertsoa sobera alderatzen dela kirolarekin: ematen du une zehatz batzuetan, batez ere gaztaroan, kolpeak eman behar dituzula, eta ematen ez badituzu, pasatzen zaizula trena. Nik ez dut horretan sinesten. Uste dut bakoitza iristen garela iristen garen tokira ahal dugunean, edo lan egin dugunean. Oso kontent nago heldu naizen tokira orain heldu izanaz, iruditzen zait zentratua nagoela, bertso-tarako gogotsu. Beti da sorkuntzarako momentua, edozein pertsona bizi-tzaren edozein momentutan sortzen ahal du, eta beti izanen da interesgarria. Hori pentsatzen dut %200ean.



Eta uste dut hori sinetsita norbera ere asko indartzen dela.

Zein izan da zure motibazioa bertsolaritzaren bidean aurrera egiteko?

Uste dut aurrera segitzeko arrazoa izan dela sorkuntza taldean egin dugula. Bertsolaritza, niretzat, sorkuntza kolektibotasunetik eta horizontaltasunetik ulertzea da, jakinda edozeinek ematen ahal dizula zerbait. Batera sortze hori magikoa iruditzen zait. Eta pertsonalki, bertsoa da nire abstrakzio momenturik handiena. Bertsotan ari zarenean, zure problema, nahi eta desiorik handiena hor gertatzen da. Asko gozatzen dut egoite hori, nire problemarik handiena *-itz* amaitzen diren hitzak aurkitzea izatea. Horrek beste guztitik abstraitzen nau, lur hartzen laguntzen dit. Beste jende batek egingo du *mindfulness* edo yoga. Niri horrek antsietatea ematen dit. Bertsolaritzak, aldiz, unean unekoa bizitzen laguntzen dit.

Ataritan gelditutako hiru final horietan, hain justu, ez zen emakumerik izan. Sentitu izan duzu zure burua ordezkatzear gain, emakumeak ere ordezkatu behar izatearen pisurik?

Ez, nik hori ez dut kontuan hartu izan.

Jende askok esan dit: “Ze ongi, emakume bat finalean. Eta nik esaten dut: “Bai, eta zazpi gizon”. Eta zazpi gizon horiei ez zaie nabarmentzen gizonak direla. Noski, ulertzen dut gutxi garela, zerbait egin behar dela gehiago izan gaitezen eta ahalik eta aniztasun handiena egon dadin, baina presio hori ez dut nire gain hartu. Bestela, sortzaile bezala, egiten dudanak baino gehiago markatuko ninduke etiketa horrek, ezingo nuke aske sortu. Gainera, ez da hainbeste emakumeak falta direla, baizik eta zergatik garen txapelketan %20, zergatik dau-den gizonen bakarrik osatutako bertso eskolak, zer gertatzen den bertso sisteman hori guztia gertatzeko. Finalean bat egonda ez da deus aldatzen, erroko aldaketa bat behar da.

Eta plazan, sentitu izan duzu inoiz kuota betetzen ari zinela?

Gauza gehiagorekin ere bai: nafarraren kuota bete dut, emakumearena... Konplikatu da, saioetan aniztasuna islatu dadin nahi dugulako, baina aldi berean ez dugulako kuota bat izan nahi. Baina ulertzen dut beste batzuk ere deitzen dituztela gazteak direlako, edo, kantatu dutelako, demagun, euskararen inguruan, eta orduan deitzen dituzte euskararen inguruko ekitaldi baterako. Bertsolaria etiketa batzuekin markatzen da,



Azken hitza

TXAPELKETAREN KARRATU ETA BOROBILAK

“Egia da txapelketa karratuegia dela, erregularitasuna asko sartzien dela, eta akatsa asko zigortu. Baina egia da ere sortzen duela plaza mota bat, entzule asko batten dituen: Iruñean 1.700 lagun elkartzea, sinbolikoki, garrantzitsua da. Txapelketa tsunami bat da, eta gero gelditzen dira olatu txikiak. Adinez ere azken urteetan Nafarroako finala berritu da, Illarregi anaiak sartu direnean, eta eskerrak. Gaztetzeak asko egin du, publikoak eskatzen ditu gauza diferenteak. Lehengoa ere egon behar da, denaren arteko batuketa izan behar da. Azkenean, bertso-laria gustatzen zaizu, hein handi batean, baldin eta zure burua berarengan islatuta ikusten baduzu”.



eta antolatzaileek etiketa horiekin funtzionatzen dute. Nahiago nuke sortzaile bezala deitua izan, baina munduak ez du agian horrela funtzionatzen. Ezin duguna egin da beti kuota batengatik deitzen gaituztela pentsatu: zu zarelako ere deitzen zaituzte. Hori ezin da izan bizkarrean hartzen dugun zama bat.

Txapelak aska zaitzake etiketa horietatik? Edo beste bat ezarri?

Nik ez nuke nahi txapela pisu bat izatea. Batzuk galdetu didate sentitzen ote du-dan "txapeldunaren ardura". Ni ez naiz oso interpelatua sentitzen halakoekin. Bakoitzak erabaki behar du bere bidea, ez dago txapeldun izateko formarik. Zer da txapeldun izatea? Bertsokerak dau-de, bertsolariak, plazak, tokiak... Ez dakit txapelak askatuko nauen etiketatik. Etiketa bat gehiago da: "Txapelduna". Nahiko nuke etiketa horiek guztietatik kanpo taldean aritu, taldekideekin batera gauzak birpentsatu, eta nire buruarekin bide bat egin. Hobetzeko asko daukat.

Nolakoa da zure bertsokera? Gaien atzeko gaiiei begiratzen diezula aipatu izan duzu...

Nik ez dakit bertsokera zehatz bat dauka-dan. Baina egia da gauza oso kategoriko, borobil eta erredundanteak ez zaizkidala

interesatzen, halako bukaera potoloei ihes egiten saiatzen naiz. Horrek ez du esan nahi momentuan ez dudarik potolokeria bat botatzen. Baina, gaia entzun, eta bertsoa ahalik eta errealena izan dadin saiatzen naiz. Uste dut heroitasunak gehiago konektatzen zuela garai batean, baina, puntu batean, populista egiten zait. Sortzaile bezala, interesgarria egiten zait gauza bat entzun eta hori kontraesantara nola eraman daitekeen pentsatzea. Behar denean sartu ur handitan, baina ez bada behar, ez egin debaldeko dramarik.

Zure jardunean nabari da diskurtso politiko bat eransteko asmoa ere.

Ez da bila noala ere. Baina denak du atzean konstruktio politiko bat. Bertso-tan teknikak ez nau hainbeste harritzen. Gustatzen zait, baina askoz gehiago iristen zait mezua. Nik, azken urteetan, lanketa handia egin dut teknikan, baina batez ere teknika izan dadin erreminta bat, mezua heldu dadin.

Ertzak eta bazterrak aipatu zenituen zure azken agurrean. Zu ertza zara?

Ni pribilegiatua naiz gauza askotan, eta oso kontziente. Botereak, batzuetan kokatzen gaitu periferian, eta beste batzuetan hegemonian. Kontziente izan behar gara nondik kantatzen dugun, zeri

eta zein helbururekin, eta nondik erabiltzen dugun boterea edo zapalketa. Beraz, ertza naizenik ez nuke esango. Esango nuke kokatzen naizela bertso-tan ikusaraziak izan ez diren kategoriatzat batzuetan, baina ez naiz, inondik inora, bazterreko sentitzen. Agurra aprobe-txatu nahi nuen normalean bistaratzen ez diren gauza batzuk bistartzeko, izan LGTBIQ+ mugimendua, edo erdaldunen seme-alabak. Baina kontziente izanda pribilegioak ere pila bat dauzkagula: hor gauden gehienok kapital kultural jakin bateko pertsonak gara, ikasketadunak, zuriak, paperak dauzkagunak.

Aurreko batean Ane Labakak *Berria*-n argitaratutako *Beltzak* artikulua aipatu zenidan, oholtzan ez dauden gorputz eta identitateen ahoetatik kantatzeari buruzkoa.

Iruditzen zait hau dela bertsolaritzak egun daukan eztabaida handienetako bat: zeri kantatu, eta nondik. Xilabako finalaren ostean asko komentatu zen: hiru pertsonak hartu zuten migranteen papera, eta bik transexualarena. Bertso-tan pertsona arrazializatuak ez badaude, zilegi da guk haien ahoetatik kanta dezagun? Baina noski, zilegi da gasolinde-giko emakume prekario adindun baten ahotik kantatzea? Non dago fikzioaren

muga? Ze fikzio gorpuztu dezakegu, eta zer helbururekin? Efektistak izan nahi dugu, eta orduan geroz eta pertsonaia zapalduagoa hartu? *Temazo* bat da, eta zalantza handiak eragiten dizkit.

Iruñea ertza da?

Ez. Iruditzen zait toki euskaldunagoetan bizi diren euskaldunek exotizatzen gaituztela, baina niretzako toki guztiz bizigarria da, eta euskaldunok normaltasun osoz bizi gara Iruñerrian. Legeek ukatzen digute tokia, eskubideak ukatzen dizkigute, hori zalantzarik gabe. Baina ertza, normalean, hegemoniak kokatzen du. Gu ez gara inorentzako anekdota bat, edo aitakeriaz tratatu beharreko euskaldunak. Gu euskaraz bizi gara normaltasun osoz, hautu politiko kontziente bat eginda, eta erresistentzian, zapaldu nahi gaituzten hizkuntza murrizketa batzuen aurrean. Baina inondik inora ez da ertza.

“Ongi egiten duzu euskaraz Iruñekoa izateko”.

Hori ere askotan aipatu izan didate bertsoan. Eta esaten dudanean Iruñekoa naizela, arbaso bila hasten dira. Nik familia osoa dut erdalduna, anai-arrebak kenduta. Uste dut euskaldunberri-euskaldunzahar eskema horrek ez diola erantzuten gaur egungo euskaldunon errealitateari. Gaur egun euskaldunok mila eratakoak gara, eta uste dut badela garaia hori birpentsatzeko, bestela eskema zaharkitu batean ari gara, eta karikaturizatu besterik ez dugu egiten.

Kontziente izan behar gara nondik kantatzen dugun, zeri eta zein helbururekin, eta nondik erabiltzen dugun boterea edo zapalketa”

Erdaldunon seme-alabak aipatuta, transmisio mota berezi bati egin zenion erreferentzia. Izatez haiena ez zena, edo ez zutena, eman digute guraso askok.

Bai, eta askok, jakinda badela norberak bere garaian jaso ezin izan zuen zerbait: “Niri ukatutako zerbait da zuri transmititu nahi dizudana”. Eta hori dena oso forma politizatuan, jakinda euskarak zer egoera bizi duen Nafarroan, eta ez dela kasualitatea erabilera

galtzen joan izana. Hemen lan handia egin da hurrengo belaunaldiak euskalduntzeko, eta helduek beraiek haien burua euskalduntzeko, alfabetatzeko. Batzuek esaten didate: “Zu zara erdaldunen alaba eta...”. Ez, ni eta nire lagun guztiak. Ez da gauza batere arraroa.

Bertso irakasle gisara zabilta.

Bertsozale Elkartearen askotan aipatzen da bertsoa ez dela helmuga bat bere baitan, euskararentzako bide ere izaten ahal dela. Zuk hori ikusten duzu?

Bai. Uste dut bertsoaritzak Euskal Herriaren eta euskararen inguruko kontzientziazio maila bat ematen dizula, niri, pertsonalki, beste ezerk eman ez didana. Herri kontzientzia izateko bide handi bat izan da, eta ez hori bakarrik: euskalkiak, hitzak, esamoldeak, herriak ezagutzeko bidea ere izan da. Niri ez zait arrotza egiten Euskal Herriko herrietara joatea, muga ez dut muga sentitzen. Niri ez dit nagikeriarik ematen kotxea hartu eta ez dakit nora joateak, sentitzen dut etxean egongo naizela Euskal Herrian banago. Eta uste dut horren kontzientzia bertsoak eman didala. ●

Zientzia eta irudimena, etorkizuneko giltzak

CAF
ELHUYAR
SARIAK
2022

Oinarriak:
cafelhuyarsariak.elhuyar.eus
Lanak bidaltzeko azken eguna:
2022ko otsailaren 12a

Antolatzaileak:

CAF

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Babeslea:

NEIKER



LARRUN #200



2022 Ilargia eta landareak

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Baratzea
Fruitu baratzea
Lore baratzea
Basoa



14€

+ 4€
bidalketa
gastuak

ARGIA BIZI BARATZEA

argia.eus/azoka 943 37 15 45



Begiradak

Egunero lez, txorrita azpian bustitako orraziaz hala moduz txukundu ditu geratzen zaizkion ile apurrak. Hortzordeak jantzi ditu, gero. Harro begiratu dio ispiluan ageri den horri eta bere kolporako pentsatu du: “94 urteko gizon autonomia zara eta gizartearentzat baliotsua zara oraindik”.

Etxepetik okindegira 75 metro. Ahalegin titanikoa egin beharko dute belaun-protesiak. Taka-takari tinko eutsi eta hantxe abiatu da ogitara. Zebra-bidean aurrera ohartu da enpresako lankide ohi baten alabak ikusi duela. Emakumeak penaz begiratu dio eta bere kolporako pentsatu du: “Gizon hau zer izan zen eta begira denboraren joanek nola utzi duen; egunkaria erostera joan beste zereginik ez du agure gizajoa, eta horretarako ere nahikoa komeria”.

Onik ailegatu da. Jende dezente ia kaleraino luzatzen den ilaran zain. Ondo. Espero bezala. Izan ere, puntako orduan joanda tenplea berreskuratzeko astia izan ohi du. Horri esker lortu du, gaurkoan ere, behin arnasa hartu eta eskaria dena segidan botatzea: “Eguerdi on. Txiki baten erdia, mesedez”. Dendariak arduraz begiratu dio eta bere kolporako pentsatu du: “Aspaldian ez du ogi handirik erosten, ez eta gozorik ere; nahikotxo argaldu da eta bakarrik eta goibel dirudi”.

Etxera buelta ez da makala izan. Aldapan gora hesteak bota ditu, ia. Atariko bi koskak igotzearen desafioa ere

Uste dut aitonak,
amonaren falta
sumatzeaz gain,
emaztearentzat zen
pertsonearen falta
ere sumatzen duela.
Amonaren begirada
falta du; falta du
amonak ikusten zuena

erdipurdika, baina azkenean heldu da etxeko sarraila parera. Giltzari bi buelta. Taka-taka sartu du lehenbizi, eta atzetik bera. Korridorean aurrera ohartu da irratia piztuta utzi duela eta esatariaren ahotsa entzuten da: “...laster hasiko dira txertoaren hirugarren dosia pertsona zaurgarrienei jartzen...”.

Sukaldeko fluorescentetako bat erre da, baina usain ona du kazolako legatzak. Ogia saskian utzi eta apirilaz gerotik igandero-igandero mahai gainean jartzen duen J&B botila atera du armairutik. Bere andrearentzat bazkalosteko kafea ez zen jai egunetako otorduak borobiltzeko nahikoa kategoria, nonbait; *ttirrirtintintin* ttantta batekin ematen zien amaiera ofiziala triapakadei. Nostalgiaz akordatu da bere parean eseri ohi ziren begi urdin haiekin.



ANA MENDIA
EMAGINA

Amona ez dagoenetik aitonak edaten du whiskia bere omenez igandero-igandero; baina aitonak ezin du pentsatu amonak bere kolporako pentsatzen zuena. Botila aterata amona presente izan dezagun nahi du aitonak, baina nik pentsatzen dut erritoak amona bera baino are presentetago egiten duela aitona alarguna. Uste dut aitonak, amonaren falta sumatzeaz gain, emaztearentzat zen pertsonaren falta ere sumatzen duela. Amonaren begirada falta du; falta du amonak ikusten zuena.

“Ohartu nintzen ez nintzela besteentzat nire buruarentzat ustez nintzen hura”, irakurri nuen behin. Akaso norberarentzat garenaz gain, bagara gainontzekoentzat garena ere. Nahiz izan litezkeen mugakoak bata eta bestea. Akaso begiradek eraikitzen gaituzte. Gizon baliotsua, agure gizajoa, erosle goibela, pertsona zaurgarria, aitona alarguna. Denak dira bera. Edo bakar bat ere ez.

Amonak basoa betetzen zuen bakoitzeko zeharka begiratzen nion eta nire kolporako pentsatzen nuen: “Festazale errebeldea”. Gustuko nuen amonaren bueltako erantzun ia ikusezina. Ondo asko zekien amonak ez naizela batere *ttirrirtintintinzalea*, baina behin hasitakoa ondo bukatzearena berea dut eta egia da otordua borobiltzeko kafeak zer bait eskatzen duela atzetik. Lagun batek dioen moduan: bazkalosteko txokolateontza esaldi amaierako puntua bezain beharrezkoa da. ●

Taulierrak fuera



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Egunak gero eta lasterrago iragaten dira eta gauak gero eta goizago etortzen.

Harago, ez da nehor ez dena jabetu gure lasterkaldi frenetikoaz, gero eta gehiagotara heltzearen beharraz. Nork ez du bere burua senTitu estu, ezin heldua, egutegi belztuaren aitzinean, beharretik ezin eskapatuz. Behin baizik ez biziko eta mila bizi bagenu bezala jarduten dugu hala ere. Ezetz erraten ikasteari uko egiten diogu. Ezetz bilkura bat gehiagori, lan bat gehiagori. Ezetz diru gehiagori, elkarte bat gehiagoko kide izateari. Gure ezetzak, arbuigarri bihurtu eta zokoratuko gintuzkeelakoan ote? Beti gabil-tza kasketa batekin ez bada bestearekin, eskua sartuz ahal bezainbat saltsatan, errealagoak bihurtzen gaituelakoan?

Gure etxeko amatzik bazeraman amantal bat. Ez genuen arras amatz, aitaixiren arreba baitzen. Alta, amatz deitzen genuen. Eta ez zen arras amantala, hori baino zerbait gehiago baitzen. Haatik ez genuen amantal deitzen, *taulier* aitzinekoa baizik.

Halaxe erraten genion, taulier, gorputz osoa troxatzen zuen eta hainbat sakela, zinta eta abar zituen oihal puska horri. Tela pisuzkoa izaten zen, ehun idorrekoa, segur aski lihozkoa. Kolore ilunekoa zen,

zikina ez agertzeko eta maiz norberak josia behar propioei egokitzeko.

Oraintxu berriz modan dira halakoak, ostalerren artean sustut, eta niregatik, ostaler horiek *Germinal*-eko jendea dirudite.

Alabaina, tresna biziki praktikoa zen. Egun osoan, funtzionalitate anitzak betetzen zituen. Sukaldean, eskas zen zapiaren ordezeko, eskuak xukatzeko balio zuen. Arroltzeak biltzeko orduan, bi puntetatik loturik, zarea irudikatzen zuen. Saihetseko sakeletik, edozein momentutan atera zitekeen Pie Qui Chante goxoki bigundua, haur negarti batentzat nahiz ahulezia baten uxatzeko nahiz, agian, ideia beltzen eteteko. Euri egunetan, korralaren zeharkatzeko, atzekoz aurrera ezarririk, aterkia zen.

Amatzik goizetik janzen zuen. Ez bainaiz oker, askaldu aitzin soinean zuen, kafea irakiteko artean, sua pizteko gisan. Zerbitzari eta langile funtzioak zituen bitartean soinean eramanen zuen. Horregatik guztiagatik, ez zen amantala, taulierra baizik. Eta ez diezadazuela erran hau ez dela hiztegian, han behar bailuke, kondizioaren ekaia baita, jodgeia baino.

Oroitzapen horretan, keinu bat dut sustut gogoan: nola tenore batetik goi-

ti taulierra kentzen zuen. Bai ala bai. Ezin jakin orduaren arabera zenez, ala betetako zeregin kopuru batetik goiti gertatzen ote zen. Segur da heltzen zela tenorea horren kentzeko.

Lehenik, garondoa uztartzen zion uhala bi aldeetatik hartu eta buruaren gainetik idokitzen zuen, gero, errainak zingilatzen zizkion korapiloa desegiten zuen, eta horrela libratzen zuen gorputz mendre hura, bera baino zabalagoa zen oihalaren trabatik.

Isilik, mahaitik altxa eta sukaldeko atearen gibelean iltzatu kako txar batetik dilingo ezartzen zuen biharamun arte. Keinu horrekin bereizten zituen lanerako eta beste zerbaitetarako tartea. Orduan hasten zen aisiaren antzeko zerbait. Berriak irakurtzea, kontuak egitea, auzoen jorratzea, leihotik hostoak hazten begiratzea, ditzotan aritzea.

Hauek guziak idazten ditut eta go-go goa dut nihaurrek taulierra askatu eta besainka botatzeko. Hala pentsatzen dut. Pentsatzen dut *slow*, orain geld. Eta gero, denek bezala, segitzen ardura batetik bestera, dena nahaspilan, iluna sekulan helduko ez balitz bezala, dena funtsezkoen kategorian balitz bezala. Dena lana bailitzan eta hortik kanpo deus ez. Ikusietatik ez al dut ikasiko? ●

Gobernatu gabeko pornografia



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Batzuk trufatzen dira gobernuz kanpoko erakundeei (GKE) dirua ematen dion jendeaz. Bestalde, ez da dotorea lau haizeetara zabaltzea ongintzara-edo bideratzen duzula zure soldataren parte txiki bat, eta beraz ez da defendatzen posizio erraza. Tira, animatuko naiz: sinesten dut, inuzentea ni, zerbaiterako balio duela keinuak. Kontua da duela urte pare bat utzi nuela GKE bat, eta berriz deitu didatela aste honetan, orduan emandako laguntzagatik eskerrak emateko, eta mesedez nire laguntza behar dutela berriz.

Konbentzituta nengoen tolesgabe agertuko nintzela langile haren aurrean, baina Afrikako ez dakit zein herrialde-tako egoerari buruz hitz egiten hasi zaidanean, bihotza samurtu zitzaidan, eta amore eman nuen ia. Pentsatzen nuen informazioa bere horretan helaraztea ez zela ni mugiarazteko gai izango, jakin nahi duenak hor daukalako, eskuragarri, nonahi... Baina bai, ia eman nuen urratsa.

Aste batzuk lehenago gertatutakoarekin lotu nuen pentsamendu hura. Hizkuntza-akademian egokitu zitzaidan pornografiari buruz hitz egitea. Alarmista -ia apokaliptiko- atera zitzaidan ahozko ariketa, aitortzen dut, baina Save the Children-ek (ez, ez zen hori nire GKEa) iaz kaleratu txostenak pixka

bat kolpatu ninduen. 40 eta piko urteko emakumezko ikaskide batek kontra egin zidan, eta nik onartu, kiroltasunez. Erabilitako argudioak harritu ninduen, ordea: sexua oraindik tabua den gizarte honetan zeinen erraz kritikatzan dugun pornografia, baina aizu, sexu-heziketa garrantzitsua dela gaztetxoentzat. Alegia, iruditu zitzaidan karkatzat hartu ninduela, besterik gabe. Segur aski ez zebilen erabat oker. Baina neure baitan pentsatu nuen, eta agian ni banago oker, fede oneko emakume hura ez zela bereziki jakitun pornografia *mainstream*-a zertan datzan gaur egun. *Mainstream*-a, esan nahi baita, gizonezko hetero-oi zuzenduta dagoena.

Beraz, dela batzuk erdi disimulan gabiltzalako, dela beste batzuk ez direlako enteratzen, pornografiak segitzen du gazteen sexu-heziketarako eragile nagusi izaten, eta... Barka, hasi behar nuen berriz nire matraka katastrofistarekin.

Zeren noski, jakingo balitz, nik zer dakit, agian sortuko litzateke mugimendu abolizionista bat, eta beste batzuek pornografia erregulatzearen alde egingo lukete -langileen baldintza duinak bermatuz-, eta, konturatzerako, elkarren etsai nagusi bilakatuko liriateke. Eta *señoro*, aliatu eta enparauok beste behin eztabaidaren lekuko pribilegiatu, krispetak besterik falta ez zaizkigula. ●

Zain



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Gipuzkoako eskualdeko ospitale bat zen. Larrialdi zerbitzuetara jendea tantaka iristen ari zen: ume bat futbollean erorikoa izanda, mendian zorabiatu zen gizona, analisiatarako paperak esku artean zituen neska... Ez nintzen ohartu adineko emakume bat zegoela itxaron gelan, gainerako gaixoen eta laguntzaileen artean. Ezer gutxi esaten du jendeak horrelakoetan. Tarteka muturra okertzen duten batzuk haien ondotik iritsitako batzuk artatuko dituztelako. "Larrialdietan larritasunak erabakitzen du ordena", esaten du erizain batek, norbait galdezka hurbiltzen zaio-

nean. Eta biltegi moduko batean bukatu duzu, aparatuez eta materialez beteta, zain. Orduan emakume bat ekarri dute andetan, eta bertan utzi dute. Ez omen da inorekin etorri. Ez omen da inor bere bila etorri. Eta ez da pena sentitu duzuna emakumeAren ikusi duzunean, zure zurekoikiari zukan pentsatzera eman behar zaituelako, ea nork zainduko zaituen zahartzen zarenean, ez ote den askok burutan dutena mundura umeak ekartzen saiatzen direnean. Eta beharbada emakume horrek seme-alabak bazituen. Bat baino gehiago apika. Batek daki. ●

Denak ala inor ez, dena ala ezer ez



ITZIAR MORENO MARTÍNEZ
EUSKAL PRESO POLITIKOA

Bakarka ezin da, kantatzen zuen La-boak. Ondotxo daki hori presondegiko jendilaje orok, txakurrek, matoiek (bokiek, urdinek, kartzelari-ek...), espetxe zuzendariek eta abarrek: presoak, batuz gero, arriskutsuak dira! Horratik, elkartasuna eta kontzientzia kolektiboa ezabatzea dute helburu (eta obsesio) nagusi. Xede horretan, originaltasun gutxi: *Divide et impera* makiaveliko zaharra darabilte presoak elkarren aurka mokoka aritu gaitezen, eguneroko ogi ditugun gehiegikeriei aurre egiteko protestak antolatu beharrean. Zaharrak berri, *homo homini lupus*. Bada, nola barruan, hala kanpoan. Jakin badakigu kartzelaren ispilu leiala baino ez direla borrokatzen ditugun egungo estatu kapitalistak: patriarkalak, autoritarioak eta, noski, entseina berdintsuei lotuak.

Historiari gainbegiratu arin bat botatzea baino ez dugu ohartzeko ezkertiar-ron arteko ika-mikek iraultzak ahuldu baino ez dituztela egin; direla komunistak anarkisten aurka Errusiako iraultzan edota Espainiako 36ko gerran, direla feministen arteko tirabirak gai jakinen inguruan, direla turkiar ezkertiarren desadostasunak Kurdistaneko mugimendu askatzailearekin... tamalez, adibide gehiegi datozkit arrapaladan burura! Zer esanik ez, gaurko Euskal Herriko errealitate politiko zalapartatsuan.


Zer pentsatu ematen
dit entzuteak,
maizegi, etsaiaren
kontra jo beharrean,
ezkertiar, abertzale eta
iraultzaileen arteko ika-
mikak elikatzen direla
aipatu sareetan

Kartzelan hamar urte baino ez da-ramatzadan arren, nik ez ditut ezagutu sare sozialak eta, are gutxiago, bertan pizten diren eztabaida politikoak (Cro-Magnon garaikoa ote...?). Zalantzarik gabe, sareok borroka ideologikorako tresna eraginkorra izan daitezke; al-diz, zer pentsatu ematen dit entzuteak, maizegi, etsaiaren kontra jo beharrean, ezkertiar, abertzale eta iraultzaileen arteko ika-mikak elikatzen direla aipatu sareetan.

Aitzitik, euskal sukalde matxinatua sigla salda betean dugula dirudi. Iruditzen zait ez dela atsekabetzeko moduko fenomeno... inondik inora! Hainbat borroka-osagai su ez-titan nahastuz gero (natural bezain zilegi delako eta, batez ere, ikuspegi iraultzaile estrategiko ba-

tekin!), iraultzaren zukua(k) borborka jarri eta garaipenaren bidea sendotu baino ez dugu egingo. Sigla salda horretan ez dugu zertan arerio izan; sozialdemokraziaren *fast-food*-ari muzin eginez, aniztasuna indar bilakatu dezagun!

Antolatuta edo gabe, lurrari grinaz lotzen eta betiere herriko gaiak lantzen. Batzuek manifik eta bilerak antolatuko dituzte, jaiak eta kontzertuak besteek; hemengoek kalea astinduko dute, kooperatiba alternatiboak sortu horkoek, instituzioetatik borrokatu hangoek; batuko gara herriko gaztetxeetan, zahar-etxeetan, ikastetxe eta auzo-etxeetan, udaletxeetan edo kale gorrian, sortzeko, bizi-bizi eztabaidatzeko, amesteko, ekiteko; antolatzeko herri ekimenak, desobedientzia, kultur ez-tandak, akelarreak, ekintza erradikalak, erreferendumak; idazteko esku-orriak, liburuak, pinta-dak, fanzineak; solasteko irratsaioetan, sareetan, belar-ur-tertulia gozoetan, gaubeila magikoetan; larruak jotzeko eta etsaiak larrutzeko... bakoitza berean, denak gurean: aldarrikapen eta bitarteko guztiak zilegi bezain beharrezko ditugu iraultzaren bidean! Denak ala inor ez, dena ala ezer ez! Estatuen biolentzia estrukturalari aurre egin eta herri as-kea(k) eraikitzeke osagai sorta zaporetsua daukagu gurean, maneatu gustura eta ekin borrokarri! ●



MAMU
ERATORTZEKO
MODUAK
JUANJO LASAGARRE



FAITH
LANDER GARRO

elkar

www.elkargialetxe.eus

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Soberania, erabakitze eskubidea eta geopolitika **Kosovon**

“Bada garaia Kosovoren legitimitatea eta subiranotasuna zuzenbide osoko estatu gisa onartzeko, bere herritarren borondatearen ondorioz sortutako estatu berri bat delako, ez zaio bizkarra eman behar demokraziari, ezta herritarren erabakiari ere”. Hitz hauekin, 2021eko azaroaren 10ean, EH Bilduko Mertxe Aizpuruak Pedro Sanchezzi eskatu zion Espainiako Diputatuen Kongresuan Kosovoko independentzia aitortzea. Ondoren, sare sozialetan eztabaida bizia piztu zen eta ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu zein den Kosovoko estatuaren legitimitatea eta soberania gradua.

Kosovo ez da herrialde soberano bat, bere erakundeak Mendebaldeak diseinatu eta horien funtzionamendua behatu, baldintzatu eta mugatzen ditu. Zenbait eskuduntza, bereziki defentsari eta segurtasunari dagozkienak, nazioarteko erakundeen esku daude. Batzuek tutoretzapeko independentziaz hitz egiten dute, beste batzuek zuzenean protektoratuaz. Horregatik, Kosovok independentzia aldarrikatu zuen AEBek eta bere aliatuek baimena eman ziotenean, ez lehenago ez geroago, 2008an. %44,9ko partaidetza izan zuten hauteskondeetatik jaio zen Kosovoko parlamentuko diputatuen %90,8ak babestu zuen independentzia aitortpena.

Serbiar probintzia ohian ez da sezesio erreferendumik egin, baina inkestengatik jakin badakigu herritarren gehiengo zabal batek independente izatea baino, Albanian integratzea nahiago duela. Horregatik, Kosovoko bandera ez da oso maitatua; are gehiago,



2008ko otsailaren 17an egindako independentzia aitortpenaren ondoren, ospakizuna Pristinan, Kosovoko hiriburuan, Albania eta AEBetako banderekin.

BALCANICAUCASO, BRUNO MARAN

oraingo gobernuko alderdi nagusia eta parlamentuko talde handiena, Lëvizja Vetëvendosje (Autodeterminazio mugimendua), boterera iritsi arte Kosovoko banderaren eta ereserkiaren aurkakoa zen. Vetëvendosjek askotan Kosovo independentearen egoera “neokoloniala eta antidemokratikoa” salatu eta autodeterminazioa eskatu du nazioarteko okupazioa amaitzeko.

Halere, Kosovon inork gutxi jartzen du zalantzan Balkanetako eskualde hau estatua bada Washingtonek horrela nahi izan duelako dela, horregatik, albaniar banderarekin batera Amerikako Estatu Batuetakoa ikustea oso normala da. Nazioarteko inkesta guztietan Kosovo munduko herrialderik amerikarzaileena bezala ageri da behin eta berriro. Washingtonek gerra irabazteko emaniko laguntzari esker eta independentziari emaniko babesari esker, Kosovo inoiz baino albaniarragoa da bere soberania

eta “erabakitze eskubidea” mugatzearen truke. Egoera aldarazi nahi zuen Vetëvendosjek. Albin Kurti-k, alderdiko liderrak eta Lehen Ministroak, orain bost urte *Politico* agerkari digitalean emaniko elkarrizketa batean argi azaldu zuen: “Kosovok Albaniarekin bat egiteko eskubidea izatea gustatuko litzaiuke. Gaur egun, gure konstituzioak ez digu uzten beste herrialde batekin bat egiten. Modu baketsu eta demokratikoan egin nahi genuke hori, potentzia handiek bortizki gauzaturiko gure separazioarekin kontrastatuz”.

Kurtiren hitzek garbi uzten zuten Mendebaldeko potentziek indarra erabiliz independizatu zutela Kosovo. Izan ere, estatuen sorrerak egintza geopolitikoak dira. Lurralde baten independentziari buruzko “erabakitze eskubidea” ez da existitzen era abstraktuan. Ekintza politikoa da eta batzuetan herrien askatasuna bultzatzeko balio

dezakeen bezala, beste batzuetan herriak zatitu, neutralizatu edota konkistatzeko izan daiteke nazioarteko potentzien mesedetan; Kosovoko kasuan Mendebaldearen eta bereziki AEBen mesedetan.

Estatu independente berri bat jaioitzeko bi baldintza behar dira: indarkeriaren monopolioa lortzea aldarrikaturiko lurraldean eta errealitate horrek nazioarteko aitortza izatea. Kosovok azken baldintzarekin du arazoa estatu normalizatua bilakatzeko. Egun NBEko estatuen erdiak gutxi gorabehera aitortzen du bere independentzia; nagusiki AEBen aliatu eta meneko herrialdeak. Halere, profil horretako estatuen artean badaude salbuespen batzuk, beraien mugetan mugimendu sezesionistak ditzuten edo potentzialki izan ditzaketen herrialdeek ez dute aitortzen. Berriz, sezesioa aitortzearen kontra dauden NBEko kideen artean, Mendebaldeko

blokearekin lerratu gabeko Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialdeen gehiengo oso zabala dago. Profil horretan salbuespena dira herrialde musulmanen batek edo bestek emaniko aitortpena erlijio afinitateagatik.

Laburbilduz, Kosovoko aitortzaren inguruan dagoen eztabaida borroka geopolitiko gordina da Mendebaldeko blokearen eta gainerako herrialdeen artean. Azken horiek estatu berria ikusten dute nazioarteko politikaren arauak urratu zituen prozesu biolento baten ondorio gisa, ezin baita ahaztu Kosovoko Estatuaren jaiotza NATOK Jugoslaviaren aurka 1999an buruturiko erasoan dituela sustraia.

JUGOSLAVIAKO GERRA, MUGARRI

Garai hartan mundua polo bakarrekoa zen. Baina, Washingtonen bazekiten nazioarteko nagusitasun oso hori ezin zitekeela denboran asko luzatu; horregatik, potentzia global berri bat sortu aurretik, segurtasun nazionaleko aholkulari izandako Zbigniew Brzezinskik adierazi zuen AEBek Eurasiaren kon-

trola hartu behar zutela munduko lidentgoari eutsi ahal izateko. Testuinguru horretan kokatu behar da 1990. hamarkadan Washingtonek martxan jarri zuen estrategia. Ekialde Hurbilean eta Asia Erdialdean hedatzeko Balkanak kontrolatzea zen lehen pausua. Baina, Jugoslaviaren politika soberanista eta diplomazia independenteak oztopo nagusia ziren, izan ere, herrialdeak funtsezko pasabidea izan behar zuen petrolio-hodi eta gasbide potentzialentzat eta kokapen geografiko ezin hobea zuen Ekialde Hurbilean operazio militarrek abiarazteko balioko luketen base militarrek jartzeko.

Jugoslaviari eraso egiteko aitzakia bat behar zen eta oraingoan Kosovoko gatazka izango zen. Kosovo XIX. eta XX. mendeetan nagusiki serbiarrek eta albaniarrek populaturiko lurralde plurinazionala zen: bi hizkuntza (albaniarra eta serbokroaziera) eta bi erlijio (musulmana eta ortodoxoa) elkarrekin bizi ziren, beste zenbait gutxiengo nazional eta linguistikorekin, erromaniak edo turkiarrak kasu.

Kosovoko bi nazionalismoen arteko borroka intentsitate handiko eta txikiko gerrak izan ditu, alde bietan biktimak eta erasotzaileak izan dira, baina gerra demografikoa izan da borrokaren azken emaitza baldintzatu duen elementu nagusia. Bi aldetatik kanporaketak eta (bir)kolonizazio saiakerak izan diren arren, garaipen albaniarra jaiotza-tasa erraldoi batean sostengatzen da. Kosovoko albaniarrak 1948an 498.244 biztanle izatetik 1981ean 1.226.736 izatera igaro ziren. 1961eko erroldan, albaniarrak (kulturalki asimilatutako ijitoak barne) %67 ziren eta serbiar-montenegroarrak %27,5 (eslaviarrak oro har, %30). Joera hau sakonki areagotuko zen hurrengo urteetan eta 1995ean albaniarrak (kulturalki asimilatutako ijitoak barne) %90 inguru ziren, gehiengoa Serbia atzean uzteko gogoz.

1998an, UÇKren (Kosovo Askatzeko Armadaren) eta Jugoslaviako segurtasun-indarren arteko liskarrak gogortu egin ziren. Ondorioz, bi aldeek giza eskubideen urraketak areagotu eta Jugos-



AEBen interesen "proxya" izan zen UÇK talde armatuaren aldeko aldarria Kosovoko Obilic hirian.

JAIR CABRERA



1999an NATOren
bonbek birrindutako
apartamentu bloke bat.
EPA

laviari eraso egiteko plan bat abian jartzeko aukera politikorako egitura sortu zuten. AEBek UÇK talde terroristen zerrendan zuen, baina gatazkaren gorakadarekin Washingtonek ulertu zuen eskura zuela Jugoslaviari eraso egiteko aitzakia; horrela goizetik gauera UÇK Mendebaldeko aliatu bilakatu zen.

Momentu horretatik aurrera NATOk esku hartze humanitarioen doktrinari protagonismo osoa eman zion. Propaganda kanpaina handi bat jarri zen martxan erasoaldia justifikatuko zuten argudio eta gezurrak fabrikatuz, horietako batzuk azaldu zituen Alemaniako WDR telebistak 2001ean ekoitzi zuen *Gezur batekin hasi zen erreportaje-dokumentalak*.

AEBek erabakita zuten beren tropak zabaldu nahi zituztela Jugoslaviako lurraldeetan, baina, kontakizuna apaintze aldera, Rambouilleteko bake negoziatzioen fartsa bultzatu zuen NATOk Jugoslaviaren aurka burutuko zituen bonbardaketak justifikatzeko. AEBen eta bere aliatuen proposamenak zuzenean Jugoslaviaren okupazio militar osoa eskatzen zuten:

“NATOko pertsonalak, beren ibilgailu, itsasontzi, hegazkin eta ekipamenduekin, Jugoslaviako Errepublika Federalaren lurralde osoan zehar bidaiatu ahal izan beharko dute, askatasunez eta baldintzarik gabe, eta horrek barne hartzen du beren aire-espaziorako eta lurralde-uretarako sarbidea. Halaber, indar horiek kanpatzeko, maniobratzeko eta

NATOren ekintzak mantentzeko, trebatzeko eta martxan jartzeko beharrezkoa den edozein eremu edo zerbitzu erabiltzeko eskubidea izango dute”.

GERRAREN NEGOZIOA

Jugoslaviak ez zuen akordio hori sinatu, duintasun minimoa duen beste edozein herrialdek sinatuko ez lukeen bezalaxe. Horrela gauzak, 1999ko martxoaren 28an hasi zen NATOk Jugoslaviaren kontra 78 egunez egin zuen bonbardaketa. Defentsarako aliantza bezala jaio zena, inoiz defentsa operaziorik egin behar izanik gabe, erasora pasatu zen giza eskubideen doktrina aitzakia bezala erabiliz. Lehenengo entsegua 1995ekoa izan zen Bosnia-Herzegovinan, NATOk –bere araudiak ahalbidetzen ez zuen– esku hartze militarra burutu zuen NBEn babesarekin. Bigarren aldiak, berriz, apustua igo egin zuen: 1999ko eraso Nazio Batuen babesik gabe gauzatu zuten nazioarteko legedia hautsiz.

Bonbardaketaren lehen ondorioa izan zen AEBen gidaritzapean sorturiko nazioarteko ordena eta arauak bertan behera gelditzea. Behin Sobietar Bata-suna desagertuta, Washingtonek ez zeukan asmorik bere zabalkunde militarra geldotzeko nazioarteko legediagatik. Jugoslavia izan zen lehena; gero 2003an, berriz gezurra erabiliz, Irakeko inbasioa gauzatu zuten nazioarteko legediaren gainetik.

Bonbardaketen bigarren ondorioa hildakoak eta zaurituak izan ziren. NA-



EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA

aholku@aholku.eus - 943 005 680
aholku.eus



**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
© 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

TOK suntsipen handiko armak erabili zituen, hala nola uranio pobretuzko bonbak eta barreiatze-bonbak, izan ere, erasoaren jo muga nagusia ez ziren izan militarrek, baizik eta herritarrek. Milaka hildakoen artean zibilak izan ziren gehiengoak, adin guztietako biktimak eragin zituzten, umeak barne.

Besteak beste, NATOk eskolak, erietxeak, hedabideak eta Txinako enbaxada bonbardatu zituen. Baina helburua ez zen soilik jendea hil eta izua piztea, baizik eta herritarren bizitza zailtzea. NATOk hamarnaka zubi suntsitu zituen Jugoslavian eta elektrizitate sarea bonbardatu zuen, milioika pertsona urik eta ogirik gabe utziz. Porlan faktoriak, petrolio industriak, Yugo auto fabrika eta telekomunikazio sistemak bonbardatu eta suntsitu zituen ere bai. Niš-eko tabako fabrika hiru aldiz jo zuten bonbek. Ondoren, AEBetako Philip Morris tabako enpresak erosi zituen lantokiaren hondarrak prezio ezin merkeagoan, izan ere, bonbardaketek baliabide nazionalak lapurtzeko baldintzak sortzen ohi dituzte.

Azpiegiturak suntsitzen dira, ondoren berreraiki behar izateko. Baina, suntsituta dagoen herrialdeak ez du baliabiderik berreraikitze lanak egiteko. Irtenbide bakarra da nazioartean maileguak bilatzea. Diru hori Mendebaldetik atera ohi da Mendebaldeko enpresa pribatuetara bueltatzeko eta obrak egiteko. Azkenean etxea puskatu dizutenek zure etxearen parte bat hartuko dute beraientzat, eta beste parte bat berregiteagatik kobratu egingo dizute. Herrialdeek soberania galtzen dute zorpetu ostean, izan Jugoslavia, Afganistan, Irak edo Libia, kasu guztietan berdin funtzionatu du.

KOSOVOREN KOLONIZAZIOA

Hirugarren ondorioa da Kosovoko lurrraren kolonizazio militar eta politikoa. Gerra NATOk eta bere UÇK-ko aliatuek irabazi zutenek, lurraldea formalki Serbia izaten jarraituko bazuen ere, praktikan Mendebaldeko indar armatu eta erakundeen esku geratu zen. Ildo horretan, AEBek hainbeste amestutakoa lortu zuten Camp Bondsteel eraikiz, beren mugetatik kanpo duten base militar handiena eta paper oso garrantzitsua bete duena Irakeko inbasioan eta Ekialde Hurbileko beste zenbait operazio militarretan.

Laugarren ondorioa Kosovoko biztanleen arteko bizikidetzari dagokio. Behin gerra bukatuta albaniar errefuxiatuak az-



NATOk hil zituen ume batzuen argazkiekin, Serbiako Nis hirian.

AFP

kar bueltatu ziren beren etxeetara, baina zoritxarrez han ez zen bukatu drama humanitaria. UÇK-ko gerrillariak eta muturreko nazionalista albaniarrek gutxiengo etnikoen eta albaniar "kolaborazionisten" kontrako jazarpen bortitza jarraitu zuten, baina oraingoan garaile izateak ematen duen indar posiziotik. NATOk indar armatuak Kosovon zeudela, eliza ugari erre eta suntsitu zituzten; hilerri eta hilotza kristauak bandalizatu; eta, serbiarren, ijitoen eta gainerako gutxiengo nazionalen aurkako lapurretak, mehatxuak, etxerreketak eta erailketak gertatu ziren. 1999tik ehunka milaka herritarrek ihes egin behar izan zuten Kosovotik.

Bosgarren ondorioa da Kosovoko albaniantze prozesuaren azkartze handia. Mendebaldeko botere partekatuen diseinu instituzional plurinazionala papeletan dago, baina albaniar nazionalisten gehiengoak ez du inoiz sinetsi tankera horretako Kosovo batean, haiek eskualdea erabat albanianartu nahi dute Albania-rekin batasuna justifikatzeko. Hori lortzeko zuten arazoak jabetuta, estrategia egokitu eta Kosovoko estatu albaniarra eraikitza bideratu zuten beren borroka. Halere, estatu hori ikuspegi sozioekonomikotik porrot handi bat izan da eta ikuspegi nazionaletik lortu zitekeen ia guztia lortu du. Ataka horretan, Vetë-



vendosjeren garaipenak bi dimentsioetan aldaketa esanguratsuak ekar zitza-keela zirudien: arlo sozioekonomikoan alderdi ezkertiarra da eta orain arteko agenda neoliberalak amaitzeko borondate irmoa agertu du; eta arlo nazionalen politika soberanista eta Mendebaldeko potentzietatik independenteagoa izango zela iragarri zuen.

Baina, oraingoz espektatibak ez dira bete. De facto independenteak diren herrialdeek soberania oso txikia dute nazioarteko potentzia baten babesa behar dutelako bizirauteko. Kosovoren kasuan bere babesleak neoliberalismoaren bultzatzaileak dira eta, beraz, ez dirudi erraza izango denik eredu ekonomiko horretatik irtetea. Dimentsio nazionalari dagokionez, Vetëvendosjek ezin du oraingoz inolako garaipenik aurkeztu, baina badaezpada bide hori posible egin ahal izateko, iragarritako politika independentea egin beharrean aurreko gobernuen ildo bera mantentzen ari da. Adibide paradigmatico bat da Kosovo izan dela Israelgo enbaxada Jerusalemen jarri duen Europako lehen herrialdea, baita hori egin duen gehiengo musulmaneko lehen herrialdea ere. Noski, Israeli atsegin ematea AEBei atsegin emateko modu bat da.

Sezesioen geopolitika horrelakoa da, independentzia bilatzen duten herrialdeen arteko elkartasunik ez da existitzen joko geopolitikoa tartean sartzen denean. Horregatik, Mertxe Aizpuruak eta Aitor Estebanek Kosovoren aitortza eskatzen zuten, baina ez zuten eta ez dute eskatuko adibidez Transnistria edo Hego Osetiako aitortza printzipio demokratikoen izenean. Printzipio demokratikoak ez direlako existitzen sezesioez hitz egiten dugunean, baizik eta interes geopolitikoak. ●

Egin dezagun!

BABESTU HAMAICA TELEBISTA

Bat izan **hamaika** *egin*

• zuzenean • eskura • euskaraz • gertutik • konfiantzaz •



Igorlerik gabeko usoak

Sigrid Faltin alemaniar zuzendariaren dokumental baten bidez izan nuen Sebastián Iradierren *La paloma* abestiaren arrakasta bitxi eta kontinenteartekoaren berri. Nire belarrietan, ordura arte, inoiz edo behin entzundako betiko melodia bitorianiko horietako bat besterik ez zen.

 RUBEN SANCHEZ

Eguerdiko hamabiak dira, Gasteizko Plaza Berrian gaude, Udaletxeko kanpai digitalen bidez, egunero bezala, entzuten da sol, soo_ol, mi, fa, sol, la, si, do, la, si, sol, faa_a... Plazan dauden artean galdetuko bagenu, zenbatek lekike melodia marmarrean ekartzen? Zenbatek zein melodia den eta norena esaten? Ez zen hainbestetan gertatuko musikari batek mundu mailako bi *hit* egitea, eta bere egiletza inork gutxi ezagutzea.

BIZET-EN KONPONTXOA

Georges Bizeten *Carmen* opera 1875eko martxoan estreinatu zen Parisen. Kritikariak gaizki hartu zuten eta 40 emanlarako sinatutako kontratua nekez iritsi zen azken saioetara, sarrerak oparitzen ibili behar izan zuten. Bizet handik hiru hilabeterahil zen, 36 urterekin, bihotzekoak jota, porrotaren min horrekin. Hil aurreko egunean, hala ere, kontratua sinatu zuen opera Vianan eman zedin. Orduan etorri zen berak ezagutu ez zuen arrakasta. Geroztik operen ranking guztietan dago lehen hamarren artean, antzoki handienetan kantari entzutetsuek abestuta.

Euskaldunok, gure zilborraren azkugarri, opera hartatik zerbait jakin dugunean, izan da *Carmen* Sevillako ijitoak soldadu nafar bat, On Jose, maitemintzen duela eta On Josek bere neska-lagun nafar Mikaela uzten duela (eta spoiler gehiago ez dut egingo). Opera horretako abesti famatuena ez zuen, ordea, Bizetek egin, frantsesezko Wikipediaren arabera: *la célèbre habanera «L'amour est un oiseau rebelle» est fortement inspiré de la habanera «El Arreglito» du compositeur basque espagnol Sebastián Iradier*. Bizetek ez omen zuen asmatzen operaren une hartako abestiarekin, eta itxuraz anonimoa zelakoan, abesti hori hartu zuen maileguan: *Fortement inspiré*

notaz nota da. Gaur egun, nahiko da orakulan *El arreglito* idaztea eta Bizeten *konpontxoa* entzutea. *Carmen*, abesti hori baino gehiago da, noski, eta balioa bere osoan du.

USOA NORA, USOA HANGO

Sebastián Iradierren bigarren arrakasta ez-aitortua *La paloma* rena da. Elvis Presley, Maria Callas, Charlie Parker, Dean Martin, Mireille Mathieu, Luciano Pavarotti, Rosita Serrano, Alfredo Kraus, Nana Mouskouri, Paul Whitehead, Julio Iglesias, Caterina Valente, Paco de Lucía... ezin konta ahala artista ezagunek egin dute bertsiorik.

Telebista ordu txikitan ikusten ari nintzen, gauerdia pasata. Zapping egin, Etb1 jarri eta, errepikapen bat edo okerragorik espero nuela, bat-batean dokumental bitxia topatu nuen. Lehen bitxikeria izan zen bikoiztuta zegoela eta nik ezagutzen nuen doinu ustez lokal bati buruz ari zela, alegia kanpoko begirada bat gure "gauzatxo" bati buruz; gauzatxo bat, bidenabar, Alfredo Donnayren kantak edo txistularien kalejirak bezala, iragan herrikoi baten azken bizi hondartzat jotzen nuen. Laster ohartu nintzen dokumentala munduan zehar zebilela abesti horren istorioa(k) kontatzen.

Dokumentalak Munichera eramanez ninduen lehenik. Hango DJ batek, Kalle Laar-ek, abestiaren 2.000 bertsio bilduta dauzka. Ez da kasualitatea alemaniarra izatea eta ez da bildumagile bakarra. Laar hainbat aldiz agertuko da dokumentalean, datu harrigarriak ematen.



'Usoa' europar hegoaldean azkar asko zabandu bazen ere, eztabaida handia dago *palomisten* artean Kuban sortu eta Kuban estreinatu ote zen, edo ez. Edonola ere, pantailan Habanako Musikaren Museoa ezagutzen den lehen grabazioetako bat ageri da, 1893koa, txukun-txukun gorderik. Abestia zulo-txodun burdinazko diskoan grabatuta dago, musika-kutxaren biraderari eragin eta... magia: sol, soo_ol, mi, fa! Musika-kutxa eta diskoa Carmen Sáenz de Bazan Jose Martiren emaztearenak izan ziren; Carmenen semeak eman zizkion museoari, eta diskoarekin batera ohar-txo bat idatzirik: "Amaren abesti gogokoena zen".

Kubatik musika talde batek eraman omen zuen Mexikora, non Concha Méndezek kantatu eta arrakastatsu bihurtu zuen. Garai gatazkatsuak ziren Mexikon: 1864an lehorreratu ziren Maximiliano eta Carlota, Frantziaren orbitapeko enperadore-enperatrizak izateko. Beste bertsio bat: senar-emazteek eraman zuten *La paloma* Mexikora; Vianan dantzaldi batean elkar ezagutu eta bien maitasun kanta egin zuten. Edonola



BAT 118 / EUSKARAREN INDAR- ETA AHULEZI-PRINTZAK IPARRALDEAN

Soziolinguistika aldizkaria

JEAN-BAPTISTE COYOS > Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra.

ENERITZ ZABALETA > Zein lege babes hizkuntza politikarentzat Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan?

EGUZKI URTEAGA > Euskararen presentzia eta aukerak. Iparraldeko unibertsitate-testuinguruan.

ARGIA OLÇOMENDY > Euskararen lekua goi mailako irakaskuntzan eta ikerketan. Ipar Euskal Herria (2010-2020).

XAN AIRE > Motibazio sozialaren printzak, ikastetxetik plazara.

XANTIANA ETXEBEST > Euskara eta irakaskuntzaren arteko hausnarketa.

GUREAN ATALA

AITOR MONTES > Osasuna eta euskara: bidegurutzean.

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA

Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko
ikergunea

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556 / bat.aldikaria@soziolinguistika.eus

Eugenia Leónek *La Paloma*-ren bertsio bat abestu zuen 80.000 lagunuen aurrean Mexiko Hiriko Zócalo plazan 2019an.



ere, ziurra da bikotea *La paloma*-rekin liluratuta zegoela, hainbeste ezen kanta Chapultepec-eko jauregiko jardinetako festen sinbolo bilakatu baitzen. Kanta bi ahoko arma bihurtu zen: Benito Juárez-en aldeko errepublikazaleek doinua hartu eta letra aldatuta kantatzeari ekin zioten senar-emazteei trufa egiteko: *si a tu ventana llega un burro flaco, trátalo con respeto que es mi retrato...* Geroztik Mexikoko doinu abertzale eta matxinoetako bat da, protesta egiteko baliatzen dena (Dokumentalean Zocalo plaza ageri da, 2006ko hauteskunde iruzurra salatzeko mukuru okupatua, eta Eugenia León abestia kantatzen).

Maximilianoren eta Carlotaren ipuinak hiru urte iraun zuen; enperadorea 1867an exekutatu zuten Queretaron. Carlota, enperatriz ohia, Europara itzuli zen, baina zorotzat diagnostikaturik, bakartuta bizi izan zen, 1927an, 60 urte geroago, Belgikako gaztelu batean hil arte. Bien bitartean, beren herrira itzuli ziren soldadu austriar-hungariar eta frantsesek *La paloma* eraman zuten beren eztarrietan. Eta modu horretan zabaldu zen Europako hainbat lurraldetan. Une horretan, adibide gisa, irudiek Errumaniara eramaten gaituzte, non abestia hileta-kanta den, hildakoak hilerrira bidean daramatzatenean jotzen dena.

Soldadu haien ondorengo soldaduek lubakitik lubakira nork ozenago kantatu

zuten Lehen Munduko Gerran su-etendaldietan: frantsesez, alemanieraz, italieraz zein ingelesez.

ROCK & ROLL

Dokumentalean, bat-batean, *boxer* itxurako bainu jantzi hutsean, Elvis Presley ageri da *Blue Hawaii* (1961) filmeko irudietan. Izan ere, abestia Mexikotik Europara ez ezik, Hawaiira ere iritsi zen, Kaliforniako *cowboy* mexikarrek eramanez. Nolatan?

Hawaiin abereak ugaltzen ari ziren eta basati zebiltzan (ganadua oparitu zioten aurreko errege bati eta ganadua hiltzea debekatuta zegoenez artxipelagoan, kontrolik gabe zabaltzen ari ziren abereak); Kamehameha III.aren agintaldian –niri ere etorri zait Dragoi Bola burura, bai– iritsi ziren lehen mexikarrek, haiek animaliak bezatu, gobernatu eta hawaiiarrei erakusteko. Mexikarrek gitarrak eta abestiak eraman zituzten berekin, tartean *La paloma*. Eta, hara: Hawaiin sustraitu ziren gitarrak (eta gitarra haietatik gitarra hawaiiarra sortu) eta 'usoa', kasu honetan 'uso' instrumental hutsa. Rock n Rollaren erregeak horrela ezagutu zuen, letra jarri eta bere bertsioa egin zuen: *No more*.

Alemaniar goaz hegaka, abestia alemaniar folkloreaken parte da, beste inon baino gehiago, ziurrenik. Ingrid Faltinguzendariak sorterrira eraman gaitu,

Coco Schumann musikariaren lekukotza entzun dezagun.

DIE TAUBE

Schumann judutarra zen amaren aldetik eta nazien holokaustoa bizi izan zuen. Lehenik, Theresienstadt txekiar ghettoa eraman zuten, han Guetto Swingers bandan jo zuen; ondoren Auschwitz sarraski-eremura aldatu zuten, eta han berriz ere musika jotzea agindu zioten. SSeta-koek *La paloma* eskatzen zieten gatibuak gas-ganberetara sarrarazten zituzten bitartean. Izan ere, Austrian, Hungarian eta Polonian, Errumanian bezala, 'usoa' hileta-martxa bat da, Mexikoko porrotaz gero. Schumann, gerra ostean, Louis Armstrong, Marlene Dietrich, Ella Fitzgerald eta Helmut Zacharia bezalako musikariek aritu zen, eta maiz jo zuen kanta ondoren ere. Dokumentalean ere jo du, kantak ez du errurik, haren hitzetan.

Bitxia da naziei itzuri egiteko kantatzat ere nola hartu zen sasoi berdinean Alemanian bertan. Hanburgo aldeko kanta zen batez ere, itsasoa eta maitasun erromantikoa gogora ekartzen zituena. 1944an *Grosse Freiheit, Nr 7* (Askatasun Handia, 7) errodatu zen, film bat non zeharka esanahi bikoitzeko hainbat mezu aditu zitekeen. Goebbelsek filma gorroto omen zuen, eta berezko "Askatasun Handia" izenari "Nr 7" eransteko agindu zuen, kale baten zenbakia irudikatzeko,

eta ez askatasunaren handitasuna. Film osoan ez fa ageri sinbolo nazi bat ere eta *La paloma*-ren bertsioan herritik alde egin beharraz eta itzultzeaz mintzo da.

Rosita Serranoren abesti ospetsuenetakoa ere izan zen *La paloma*. Artista txiletarrak arrakasta itzela lortu zuen Alemania nazian: *die Chilenische Nachtigall*, txiletar urretxindorra goitizena jarri zioten. Antzoki eta estadioak betetzen zituen, tartean Berlingo Estadio Olinpikoa, 75.000 lagun hartzen zituen. Alemaniako Telefunken diskografika nagusiarekin ehunetik gora kanta grabatu zituen, irratiko izarra zen, eta Führeraren Mercedes-Benz berdina zuen, bere begi berdeen koloreaz tapizaturik. Alabaina, Hitler, Göring eta Goebblesen kuttuna izatetik, atxilotzeko agindua izatera pasa zen. Espioitzat hartu zuten –Suedian judutarrentzat kantatu zuen, eta bere etxean ere ezkutatu omen zituen zenbait judutar–. Rosita Serrano Suedian geratu zen, Alemania naziak bere aberastasun guztiak atxikitu zituela. Ondoren ere, hamaika gorabehera izan zuen bizitzan.

Eta 'usoak' Alemanian jarraitu. 2004an Hanburgoko hiriak eskatu zuen Guinness liburuan sartzeko, munduko abesbatza handiena osatu izanagatik: 88.600 lagun. Zein kanta? *Die taube*.

USOA

Eta telebistan bat-batean Gasteizko Andra Mari Zuria, jardinak zitueneko irudiak. Primitivo Langarika ageri da, gasteiztar bildumazale bat, abestia grabatua duten mila diskotik gora bildu zituen.

Bi istorio polit kontatzen ditu. Lehen, bere lagun bildumazale batekin gertatu zitzaiona. Bildumazaleen ezaugarri (nagusia) da bitxikeriak biltzea. Langarikaren lagunak harmonika diskoak biltzen zituen, Langarikak 'usoak'. Bazuten disko bat biek bilatzen zutena: Larry



Gasteizko hainbat kultur eragilek Sebastián Iradierren omenezko gune bat eskatu zuten 2018an.

GASTEIZHOY

Ardler harmonika jole ezagunarena, *La paloma* kanta zuena. Langarikak lortu zuen eskuratzea, Zaragozan (Aragoi). Gasteizera irribarrea ezpainetan itzuli zelarik jakin zuen laguna bi egun lehenago hil zela, eta diskoa erakutsi ezin izanaren atsekabeaz geratu zen.

Bestea istorioa da, Langarika etsitu samar zebilela, milaka bertsioen artean euskarazkorik ez zuelako topatzen. Egun batean, ordea, ezustean entzun zuen irradian, Kontrairo taldeak kantaturik. Jatorduen osteko kantaldietan erdaraz jaso, eta euskarazko bertsioa ekarri zuten, Mexikon, Alemanian, Errumanian, Hawaiin edo Zanzibarren beste batzuek egin antzera.

Zanzibarreko irudiekin bukatzen da dokumentala, islamaren presentziapen (Errumanian kristautasun ortodoxoan bezala) eta afrikar dantza erritmoekin nahastuta, jai giroan. Zanzibarren 'usoa' swahiliz kantatzen den eztei-kanta da.

IGORLE ANONIMOA

Gizakiak nota batzuk aditu ahal ditu, fi-

nituak; musika, ordea, infinitua da, noten konbinazioak berdin. Musika bada, geometria, aritmetika eta unibertsoan gertatzen diren beste hainbat egitate bezala bada, existitzen da; gizakia baino lehen zegoen eta gizakirik gabe ere izango zen.

Beharbada, ez da hain garrantzitsua Iradierren bandera astintzea, probintziaren gorazarre. Museo baten harribotserako 'uso' guztiak ekarri: maitasun kantarena, protestarena, hiletarena, holokaustoarena, askatasunarena, ezteiena...? Ageri den ehunka pelikulak eta milaka diskoak bildu? Ala, besterik gabe, kantatu?

Tira, zorrak kitatuz: Sebastián Iradier Lantziegon jaio zen, Gasteizen eta Agurainen organista izan zen. Herri horretan ezkondu zen, baina laster utzi zituen emaztea, Brígida de Iturburu, eta semea, Pablo, eta Madril, Paris, New York, Kuba eta abarretan ibili zen bizi bohemioa eginez. Gasteizera itzuli eta bertan hil zen, ahaztu antzean. Santa Isabeleko hilerrian lurperatuta dago "organista" tituluarekin.

Baina hori dena beste istorio bat da. ●



Tinko
euskara elkarte

Filmen eskaera egiteko:
tinkoeuskara.eus 943 310 036

**2021/2022 ikasturteko
programazioa ikastetxeentzat**

“ ”

Interesgarria litzateke ikustea herritarren asanblada batek zer neurri hartuko lituzkeen COVID-19ari dagokionez

Arantxa Mendihaat

Prozesu deliberatiboen kudeatzailea

*Demokrazia posible da. Zozketa zibikoa eta deliberazioa
herritarren boterea berreskuratzeko (La democracia es posible...
gastelaniaz) liburuaren egileetako bat dena elkarriketatu
dugu, gure eguneroko bizitzako oinarritzko erabakiak inoiz
baino gutxiago herritarrok hartzen ditugun honetan.*

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  JOSEBA ZABALZA

COVID-19aren kudeaketaz apenas dagoen debaterik.

Honelako muturreko egoerek agerian jartzen dute ongi ez doan guztia. Eta gure gizartean ongi ez doan gauzetako bat da, ez dugula pertsona ezberdinen artean deliberatzeko espaziorik, ezta elkarriketarako edo debaterako ere. Horretarako espazioak ez baditugu, horrelako egoera batean ez dakigu gaiari nola heldu, ez dugu erremintarik aurre egiteko. Kultura hori falta dugu. Sistema politikoak birpentsatu behar ditugu, erabat aldatu, gure artean deliberazio espazioak sortzeko.

Zozketa bidezko demokrazia aldarrikatzen duzue. Nolakoak dira Madrilen, Bartzelonan, Kantabrian... praktikara eraman dituzuen deliberazio espazio horiek?

Zozketaz hautatutako taldeak dira eta beraz, gizartearen ordezkagarritasun bat badute, edo zehatzago esanda, ordezkatu baino gehiago deskribatu egiten dute lurralde horretako aniztasuna eta horrek dakar espazio horietan elkartzen garela bestela inoiz elkartuko ez ginatekeen jendearekin. Gutxienez 30-35 pertsonako taldeak izaten dira.

Sistema hau txandakakoa da. Sistema politiko osoa zozketan oinarrituko balitz, izan liteke gure bizitza osoan hiru aldiz tokatzea prozesu hauetan parte hartzea. Egungo sisteman, oso pertsona gutxi batzuren esku dago botere osoa eta gainerakook erabat jokoz kanpo gaude.

Zozketa bidezko sisteman ez dago, egun bezala, alderdi politikorik. Batzutan esaten digute sistema horrek despolitizatu egiten duela. Eta guztiz alderantziz da, zozketa bidezko herri batzarretan parte hartu duten pertsona guztiak birpolitizatu egin dira, eta per-

tsona horiek hala esaten dute: “Badira erramintak, iritsi gaitzke kontsentsuetara eta akordioetara ezagutzen ez ditugun pertsonekin”. Eta sentitzen dute ekarpena egin dezaketela, zeren pertsona asko ez da legitimo sentitzen gai publikoez hitz egiteko.

Prozesu metodologiko oso bat dago akordioa iristeko. Deliberazio teknika gakoa da: nola jartzen garen ados ezberdinon artean, gatazkatsuak, konplexuak eta epe luzekoak diren gaietan.

Nola egiten da deliberatzeko bidea, herritar horiek gainera ez badira gaian adituak?

Normalean 40 ordutan deliberatzeko prozesua izaten da. Galdera ongi planteatzea da gakoa, ordu horietan deliberatzeko modukoa izan dadin. Saiatzen da etxerako lanik ez dadin egon, zeren etxerako lanak desberdintasuna sortzen du, batzuek denbora izango dute eta egingo dute eta beste batzuek ez... beti zaintzen da baldintza berak izatea guztientzat.

40 ordu horietan lehen fasea ikastea izaten da, bigarren fase bat deliberatzekoa, eta hirugarrena gobernuarentzat praktikara eramateko gomendioak sortzekoa. Ikasketa faseari orri zuri batekin ekiten zaio, kide bakoitza bere bizipenekin, esperientziekin eta ezagutzeekin doa eta galdetzen zaie zein informazio jaso nahi duten deliberatu behar duten gai horren inguruan eta norengan duten konfiantza informazio hori eman dezan. Modu horretan bermatzen da informazioa emango duten ponentzien artean ere aniztasuna egongo dela; garrantzitsua baita joera guztietako informazioa jasotzea, ez bakarrekoa.

Deliberatzeko, beti lan egiten da zazpi pertsonako talde txikitik eta plenarioan. Talde txikian jendea eroso sentitzen da eta hitz egitera ausartzen da.

Azkenik, gomendioak egiten dira, eta bilatzen da gehiengo zabal baten babesak izatea (%80arena adibidez). Saiatzen da “irabazi-galdu” eskeman ez erortzen. Eta gutxiengoaren ahotsak gomendioen atalean jasotzen dira: %80aren babesarekin adostutako neurri bat onartzen bada ere, asanblada horretako bost pertsonak adierazi nahi badute zergatik dauden erabat desados neurri horrekin, jaso egiten da. Hori oso garrantzitsua da, gutxiengoei ikusgarritasuna emateko eta ondorengo prozesuetan jakiteko zein puntutan zeuden posizio ezberdinak.

Pandemiaren kudeaketa hobe joango litzateke zozketaz hautatutako herritarren deliberazio espazioekin?

Zozketaz hautatutako talde batek agian neurri berberak hartuko zituen. Ez dakigu. Baina hasteko, gizartearen onarpen handiagoa izango zuen, talde horretan bera bezalako jendea ikusten duelako herritar bakoitzak.

Nik uste dut hartutako COVID-19 neurriak egokiagoak izango liratekeela, arrazoi hauengatik: lehena, taldearen ordezkagarritasuna da. Ordezkararitza-

sunak bi abantaila ditu: batetik, gizarte maila guztietako pertsonak ditugula eta hori ez da gertatzen politikarien munduan. Badakigu politikarien profila jakina dela: hezkuntza jaso duen jendea da, gizarteko maila ertainetik gorakoa, gizonak gehiago emakumeak baino... Zozketa bidezko taldeetan, aldiz, gizartearen isla fidela dugu: ikasketarik gabeko pertsona asko, adin guztietako pertsonak, ideologia guztietakoak (guztiekin egon behar baitute ordezkatuta talde horietan)... Adibidez, krisi honetan ikusi



Arantxa Mendiarrat (Senpere)
Eugin elkarrizketatu genuen
udan. Negu honetan eguzki
hura nola, energia emaila da
Ernesto Ganuzarekin 2020ko
irailean argitaratu zuen liburua.

dugu zaintza lanak ezinbestekoak direla, eta aldiz, gutxien ordaindutako lanak direla... Deliberatu behar duten pertsonen erdiak zaintzaileak diren talde batean, erabaki berak hartuko dira? Nik uste dut ezetz. Taldearen ordezkagarritasunak badu beste abantaila bat: aniztasun kognitiboa. Ikerketa zientifikoek berresten dute talde heterogeneo batek erabaki hobeak hartzen dituela talde homogeneo batek baino. Denek berdin pentsatzen dutenean, ez dago inor kontrastatuko duenik eta dudak jarriko duenik batek esan duena.

Bada beste arrazoi bat eta da, talde horiek oso zailak direla presio taldeek manipulatzeko. Arduradun politikoei karrera luzeak egiten dituzte eta badakigu harremanak dituztela lobbyekin, ez beti gardenak, ate birakariak ere badaudela... Zozketaz hautatutako talde batean, 35 pertsonatik bat izan daiteke lobby batera lotua dena, eta bere ikuspuntua baldintzatuko duena, baina 35etik bakarra izango da.

Prozesu deliberatiboetan lobbyek ere beren lekua daukate, aditu moduan, baina modu gardenean egiten da, eta ikuspuntu desberdinetako lobbyak gonbidatzen dira.

Munduan nola eta zertarako jartzen dira martxan herritarren batzarrak?

Uste dut gobernuak oso kontziente direla sartuta dauden *inpas*se egoeraz, beraiei eta herritarren artean dagoen arrakala sakonaz. Erabateko legitimotasun falta dute. Eta mekanismo hau ona da gai zailetan kontsentsua eta gizartearen legitimitatea lortzeko.

Lehen herritar asanbladak Kanadan egin ziren: hautes legearen erreforma proposatu zuten eta gero erreferendumeraren eraman zen (erreferendumean ezetza ateratu zen). Ondoren, Irlandan egin zen asanblada oso ezagun bat, abortuaren inguruan. Urteak zeramatzen politikoen artean ados jarri ezinik eta herritarren asanbladak landu zuen gaia eta gero erreferendumeraren eraman zen (eta abortoa legalizatu).

Une honetan hainbat gobernutan praktikan jartzen ari den modua hau da: gobernuak herritarren deliberazio taldeak antolatzen dituzte, kasu gehienetan gobernuak dira erabakitzen dutenak zein gai landuko duen talde horrek, eta talde horiek bilatzen dute gehiengo zabal batera iristea. Eta talde horiek onartzen dute haiek egingo dituzten proposamen anitzen artean, adibidez, %80ko



oniritzia lortzen duten proposamenak direla gobernura joango direnak.

Gobernuetan joera da talde horiek instituzionalizatzea, iraunkor bihurtzea. Horrek esan nahi du, etengabe lanean ari direla. Horrelako bat dago Belgikako Ostbelgien-en: 25 pertsonako talde bat dago modu iraunkorrean, zein gairen inguruan sortu behar dituzten gomendioak beste herritar asanblada batzuek (talde honek aukeratzen baitu agenda). Talde hori modu errotatiboan, hau da, urtero edo bi urtez behin taldearen erdia berritu egiten da. Iraunkorra den talde hau gai larri eta presazko baterako eraginkorra izan daiteke. Eta talde honek, COVID-19a lehertu baino hilabete batzuk lehenago, osasun langileen lan baldintzak lantzea erabaki zuen. Hor ikusten da errealitatearekin oso ongi konektatuta daudela.

Hainbat gobernuak zozketaz hautatutako talde deliberatiboak eratu dituzte COVID-19arekin lotutako gaiak lantzeko. Ongi dago egitea, baina gakoa da ondoren zer egiten den talde horrek ondorioztatzen dituen gomendioekin. AEBetako Oregon estatuan, COVID-19arentzako batzar herritarra egin zuten, erabakitzeko zein gai ziren lehentasunez landu behar zirenak. Talde horrek ateratu zuen ondorioa izan zen, aurre egin beharreko hutsuneak zirela etxebizitza eta hezkuntza.

Bozka soilik erabaki behar izatea erosoa zaigula dirudi. Proposatzen

duzuen eredu honek beste inplikazio bat eskatzen du.

Zenbakiak erakusten dute herritarrei horrelako prozesu batean parte hartzeko gonbidapena bidaltzen zaienean, %5-10ak erantzuten duela, nahiko gutxi. Eta hala ere, talde horietan askoz aniztasun handiagoa lortzen dugu jendeak bere borondatez parte hartzen duen beste edozein prozesutan baino. Oso positiboa da emaitza, baina bide luzea dugu egiteko.

Jende askok nahiko lan eta kezka badu bere bizitzan dagoeneko, ez dago herritarren estatuturik zeinak posible egingo lukeen lanegun bat hartzea horrelako prozesu batean parte hartzeko... Horrek denak asko lagunduko luke. Orain egiten den gutxienezkoa da pizgarri ekonomiko bat ematea. Pizgarri horrek laguntzen du ibilbide sozial zailagoa duten pertsonen parte hartu dezaten. Pertsona horiek diruagatik parte hartzen dute, baina berdin da, sartzen direnean berdin lan egiten dute, eta ikusten dute gai direla, eskatzen dena ez delako hain teknikoa. Eskatzen dena besteei entzutea eta elkarrekin pentsatzea da. Prozesu hauekin, ditugun eskema kultural asko puskatu egiten dira.

Askotan, oso politizatuta dagoen jendeak pentsatzen du bere ideologiak jada arazo denen erantzunak ematen dituela, eta beraz, zertarako nahastu ezberdin pentsatzen dutenekin? Ez dute honen onurarik ikusten. Beste jende askok oso lasai esaten dizu "nik pentsatzen dudana



da onena". Eta hori da denok pentsatzen duguna, arrazoi dugula! Konfiantza eduki behar da horrelako prozesu batean zure pentsamendua ongi ordezkata egongo dela, eta pertsona horiek gai izango direla erabaki onenak hartzeko.

Posible da politika osoa horrela antolatzea?

Munduan jende asko ari da nola izan zitekeen irudikatzen. Irudikatzen duten eredu hori, asanblada askok osatutakoa da. Antzinako Greziako irudia dute buruan: agenda erabakitzeko asanbladak, gaiak lantzeko asanbladak, eta kontrola egiteko asanbladak. Agenda erabakitze-ko asanbladak erabakiko luke zein diren landu beharreko gai garrantzitsuak, eta gai horietako bakoitza lantzeko asanblada bana antolatuko litzateke, eta azkenik, kontrol asanbladek jarraipena egingo lukete bermatzeko egiten diren gomendioak martxan jartzen direla... Pentsatzen ari diren sistemak dira, baina inoiz gauzatu ez direnak.

Nik probatu ez den ezer ez dut sinesten. Duela hamabost urte izan nuen lehen aldiz gai honen berri eta izugarri gustatu zitzaidan, baina esan nuen "ikus nahi dut eraginkorra den". Asanbladatan ikusi dut baietz, eraginkorrak direla. Orain, honek funtzionatuko lukeen sistema politiko oso moduan? Ez dakit.

Zergatik egon dira prest agintariak birusaren aurrean erabaki azkar eta irmoak hartzeko, eta aldiz, ez daude

prest birusa eragin zuten arazoan aurrean halako erabakiak hartzeko?

Pentsa dezakegu presio taldeek beren eragina dutela. Interes taldeen lobby ikaragarria dago, gauzak aldatu ez daitez. Alderdi politikoak horien menpeko dira. Horregatik da hain garrantzitsua lobby horien menpeko ez diren pertsonen taldeak izatea erabakiguneak.

“ ”

Onartu behar dugu gure bizi esperientziatik ere hartzen ditugula erabakiak, eta pertsona moduan hartzen ditugula, ez datu prozesatzaile moduan

Orain bogan daude asanblada klimatikoak. Famatuena Frantziakoa izan da, Macronen gobernuak deitutakoa. Baina zergatik deitu zuen asanblada? Demokrazia gehiago eskatzen duten jaka horien presioaren ondorioz.

Lehen aldiz asanblada klimatikoan historian, Frantziako Gobernuak eskatu zien ez gomendio orokorrak egiteko, baizik, zuzenean legea idaztera jotzeko. Zozketaz erabakitako 150 pertsonak

osatzen zuten asanblada eta zazpi asteburuz lan egin zuten, ia urtebetez eta 150 gomendio sortu zituzten. Asanblada honek, adituez gain, bere eskura izan zituen legelariak, lege testuak idazten laguntzeko. Frantziako Gobernuak uneoro esan zien asanbladak gomendatutako neurri zehatzak plantan jarriko zituela filtrorik gabe. Eta noski, Klimaren Legea atera denean, ez ditu herritarren asanbladak proposatutako neurri asko jaso. Jakina da indar handia egin dutela automobilen lobbyak, aeronautika industriarenak, hidrokarburoenak, nekazaritza intentsibokoak... asanbladak 150 neurriak proposatu eta biharamunean, han zeuden lobby denak Frantziako Gobernuan, "hau ez da posible" esaten.

Asanblada klimatikoak bogan daude, bat egin dute Eskozian, bat Britainia Handian, Espainiak berea azaroan hasi du... Herritar modura, asanblada horien gainean egon behar dugu, eta ikusi behar dugu nola den asanblada horietako gobernantza, konfiantza izan dezagun haien emaitzan. Eta ondoren presioa egin, herritarren asanbladen gomendioak benetan praktikan jar daitez. Gizartearen presiorik gabe, asanblada hauek egingo dira, baina funtsezkoak ez diren galderen inguruan. Hori da gakoa.

Pandemiarekin ikuspegi teknokrata indartu da, medikuek eta zientzialariek esaten digute gure bizitzak nola bizi. Sistema honek eskatzen du sinestea formazio gabeko pertsonen erabaki onak hartu ditzaketela.

Gai guztietan beti daude bi mailak: maila politikoa eta maila teknikoa. Askotan biak nahasten ditugu. Herritarren asanbladek maila politikoan hartzen dituzte erabakiak. Atzean daude erabaki politiko hori aplikatzeko soluzio teknikoa emango duten profesionalak. Baina lehenik maila politikoa dago, eta hori asanbladak egiten du.

Okerra da pentsatzea erabakiak beti modu arrazionalen hartzen direnik. Jakina da, erabaki asko modu emozionalen hartutakoak direla, nahiz eta datu askorekin eta modu oso arrazionalen aurkezten dizkiguten. Horrek ez du esan nahi datuak kontuan hartuko ez ditugunik. Baina onartu behar dugu gure bizi esperientziatik ere hartzen ditugula erabakiak, eta pertsona moduan hartzen ditugula, ez datu prozesatzaile moduan. ●



Antzinako merkataritza isil eta eraginkorra



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Afrikako kostaldea, K.a. VII. mendea. Nekao II.a egiptoar faraoiaren aginduz, feniziarrek Afrika zirkumnabigatu zuten. Itsaso Gorriaren iparraldetik abiatu, Indiar Ozeanotik kontinentearen ekialdeko kostalde guztia ibili, Ozeano Atlantikoan sartu, aurkako haize eta korronteak gaindituz iparraldera egin eta Gibraltarko itsasartetik Mediterraneora itzuli omen ziren. Edo horixe dio Herodotok (K.a 484-425) *Historiak* lan marduleko IV. liburukian.

Ondare material gutxi utzi zuten feniziarrek eta nagusiki historialari greziar eta erromatarren bidez dakigu haien berri. Nabigazioan eta merkataritzan nabarmendu ziren nagusiki, eta Mediterraneo ekialdetik mendebalderantz zabaldu ziren, Afrikako kostaldean koloniak eratuz. Zenbait kasutan, Kartagon, esaterako, benetako hiriak sortu zituzten, beste batzuetan harresiz inguratutako portu-biltegiak, greziarrekin gatazkak izan zituzten merkataritza guneta bidez kontrolatzeko, hala nola Alaliako guduan... Baina Mediterraneoan portuetako iskanbilaz eta truke zalapartatsuez haratago bestelako merkataritza modu lasaia goa erabili zituzten.

Herodotok IV. liburuan dioenez, salerosleen arteko inolako kontakturik gabeko trukeak egiten zituzten feniziarrek Libian, "Herkulesen Zutabeez haratago". Greziarrek Afrika osoari esaten zioten Libia eta Herkulesen Zutabeak ziotenean



BEIRUTKO MUSEO NAZIONALA

Feniziar ontzia, K.a. II. mendeko sarkofago batean zizelkatua.


Gibraltarko itsasartea esan nahi zuten. Besteen hizkuntza jakin gabe, eta harremanetan sakondu gabe, konfiantzan eta errespetuan oinarritutako trukeak egiten zituzten. Feniziarrek kostaldera iristen zirenean beren salgaiak hondartzan utzi eta suak pizten zituzten, kearen bidez bertakoei jakinarazteko trukean has zitezkeela. Bertakoei orduan salgaiak aztertu eta beren ustez merezi zuten ordaina, nagusiki urretan, uzten

zuten salgaien ondoan. Feniziarrek prezio egokia iritzi gero, urrea hartuko zuten eta ondoren bertakoei erositakoa jasoko zuten. "Baina ez bazaie nahikoa iruditzen, ontzietara itzultzen dira, eta bertakoei urre gehiago eranstean dute, besteen nahiak ase arte, jakina baita batzuek ez dutela urrea ukitzen prezio egokia lortu arte, eta besteek ez dutela salgaiarik ukitzen beren urrea hartzen dieten arte". ●

Eszitiar jainko-jainkosak zilarretan

Erusiako Zientzia Akademiako arkeologoen Voronezh eskualdeko Devitsa V eszitiar nekropolian duela 1.700 urteko zilarrezko plaka bat aurkitu dute. Plakan hainbat jainko-jainkosa eta grifo hegodun daude irudikaturik eta Valeriy Gulyaev arkeologoaren esanetan, eszitiarrak hobeto ezagutzen

lagunduko duten bi ekarpen nagusi egiten ditu; batetik, "pieza bakarrean ez dira sekula hainbeste jainko-jainkosen irudiak aurkitu, eta horietako bat orain arte ezezaguna zitzaigun", eta bestetik "horrelako piezarik ez da orain arte aurkitu eszitiar nukleo nagusietatik hain urrun". ●



RAS INSTITUTE OF ARCHEOLOGY

ARGIA JENDEA



DANI BLANCO

Durangok utzitako lurrina

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

COVID “k”-rekin idatziko balitz euskaraz balioko liguke K.a. eta K.o. formulak pandemia aurre eta ondorena adierazteko. K.o.-ko Durangoko Azoka, adibidez. Tira, ez dut uste aurtengoa hala datatuko nukeenik. Pandemia pasata egotetik urrun samar ikusten baitut oraindik. Baina 2021ean, behintzat, lortu da Landako publikoari irekitzea; K.a.-ko baldintzetan izan ez bada ere. Nola joan da azoka, ARGIAren standetik begiratuta?

ARGIA bere komunitateari eman nahi izan dizkio eskerrak: “Beste behin gure komunitateak babestu du proiektua, gerturatu da Durangora eta etorri da gugana; eta oso esker-tuta gaude”. Garbiñe Larrearen *Sendabelarrek dakitena* liburuak harrera beroa izan du eta lagun asko hurbildu da egileari zuzenean galderak egitera. Jakoba Errekondo, beti bezala, komunitatearen zalantzak argitzen aritu da, letxugak banatuz. Gainera, Zigor Olabarria eta Koldo Rabadan ere Durangon ibili dira hurrenez hurren beren *Txori Urdinak* eta *Bidean* liburuak sinatu eta azalpenak ematen. Kazetariekin egoteko aukera ere izan dute bertaratu direnek.

Landakotik kanpo, Andra Mari elizapean, Inor Ez Da Ilegala proiektua babesteko kamiseta, jertse, poltsa eta beste hainbat produktu saltzen aritu dira Pape Niang eta Bouba Diouf Mbolo elkarteko kideak ARGIAkoekin

batera, eta hauek ere gustura agertu dira jaso duten sostenguekin.

Bisitariari txanda bakoitzeko jende kopuruak mesede egin dio lasaia go ibili ahal izan delako erakustoki batetik bestera, errazagoa izan baita hedabide, argitaletxe, musikari edo elkarteetako jendearekin solasaldi txiki bat edukitzea; baina denborak akaso estres puntua ere eman dio bisitari. Konturatzerako denbora gainean duzu, ordu erdi geratzen da txanda amaitzeko, oraindik ez duzu ezer erosi eta hasi beharra dago mugitzen. Deskubritu gabeko libururen bat topatzeko tarterik ez. Liburu denda batera joan eta aurkikuntza berriak egiteko plazer gutxitxo, aukeran. Izan dut sentazioa kate handi bateko arropa denda erosketak egitearena: presaka, ia arropa probatu ere egin gabe. Eta bukatu da, atera egin behar dugu, segurtasuneko txanda betetzen ari direnek ondo bete dute lana eta bidali gaituzte kalera, gunea aireztatu eta gu ere haize pixka bat hartzera.

Dena den, ARGIAren standean lanean aritu direnek aitortu digute beraien ordu erdiko deskantsu hori ondo etorri zaiela, K.a.-ko Durangon hasi eta geratu ezineko txandak izaten baitziren sarri, erakustokia txukuntzeko tarterik gabe, komunera lasai joan eta kafe bat hartzeko betarik gabe; eta aurtengo tarreak aprobetxatzen jakin dute lantaldeko kideek. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Premiazkoa delako zuok egiten ari zareten lana gure artean izatea”

Durangoko Gloria

“Euskarazko kalitatezko kazetaritza jaso eta bultzatzeko”

Hendaia Oihana

“Egitasmoarekin guztiz bat natorrelako, eta oso lan interesgarria egiten duzelako. Gure gizarteari ekarpen baliotsuak eskaintzen dizkio ARGIAk, informazio hutsetik harago”

Urretxuko Pello

“Euskarazko prentsa kritikoa bultzatzea garrantzitsua iruditzen zaidalako”

Zornotzako Larrun



AGENDA

Txori urdinak

Espetxe sistemaren erretratu bat
Santi Cobos presoaren bizipenen bitartez

Zigor Olabarriak liburu aurkeztuko du Anselmo Olano euskal preso politiko ohi eta Santiren lagunarekin batera.

🕒 **Abenduaren 20an** 19:00etan

📍 **Donostia** Kaxilda liburu-denda (Arroka kalea, 2-behea)

PUZGAILUAK DEFINITZEN DU GURE JENDARTEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Usteldu eta lur bihurtzen dira” esanda borobildu zuen bere erretolika. Ezagun bat zuhaitzek eta zuhaixkek urte garai honetan askatzen dituzten hostoez ari zen. Gaizki-esaka. Bera txirrindularia da, lanetik kanpo txirrinda besterik ikusten ez duen horietakoa. Euri-jasa galantak izan diren egun zoragarri horietako batean, txirrindari heltzeko giro zakarra eta kafe bat hartuz aritu gara gaiaz. Berari, bide ertzean txirrindaz joateko enbarazu egiten dio orbelak, noski! Ez eta baiari ustez errematea eman nahian bota zuen usteldu eta lur bihurtzen direlako hori. Berari irrist egiteko arriskua zena niri hostoen aldeko arrazoiketa indartzeko argudio dotorea iruditu zitzaidan. Lurra bizitzaren oinarri nagusia da!

“Hostoari gerra” da kaleetako ikurritz nagusia urte sasoi honetan. Aspaldi hasi zen gerra; dagoeneko irailean ekin zioten lehen gudariak hostoaren kontrako gudaldiari. Oraindik hostoz bete-bete jantzita zirela lehen adar mozketak ikusten hasi ginen batean eta bestean. Betiko kontu jakina da, baina errepikatzea merezi du: kale garbitzaileei lana kentzeagatik zuhaitzak hiltzen ari gara. Hostoari zuhaitzaren gainean ez bazaio bere zikloa burutzen uzten, zuhaitzak ez ditu behar bezala osatuko negua poliki igaro eta hurrengo urtea indarrean hasteko behar dituen gordekinak. Hosto bat espaloian ikustea baino hobe da zuhaitza hiltze bidean jartzea. Hori da inausketa hostotsu hori egiten duena, hobe esanda, hori hagintzen duena: eraile bat.

Bada beste lubaki bat guda horretan: puzgailua edo putz egiteko makina. Garai batean, erratza erabiltzen zen; txilar erratza edo inar isatsa edo ilarra isuskia (*Erica spp.*) zen kale garbitzaileen arma nagusia. Eragin motzeko arma, kolpeka-kolpeka hostoak pilatxoetan bildu eta saskira eramateko nahikoa. Gaur egun putz egiten duten makinak dira bazter guztietan. Askok eta asko ikaragarritzko



Facebooken @eljeross erabiltzaileak argazki hau zabaldu du, azalpen honekin: “Hostoak errazten ari nintzen eta irudimenari hegan egiten utzi diot”.

burrunda zalapartatsua sortzen dutenak, ixiltxeagoetarako joera zabaltzen ari bada ere. Baina gerrako makinak hurbiltzen ari direla ohartarazten duen burrundara ez da txarrena. Okerrena egiten duen lanaren ondorioak dira. Hostoa ufatu eta bildu bai, baina baita hautsa, polena, hegazti txakur eta abarren gorotzak, alergenok eta abar haizatu ere, urrun asko eramanez, etxeetara adibidez, baina baita gure eztarrietara ere. Hostoak toki jakin batzuetan biltzea bale, baina belardi, lorategi eta abarretan lasai asko utz daitezke bertan, ekosistema aberastuz. Eta erabiltzen duten energia eta sortzen duten ke kutsakorra...

Sistema errazagoa, ederragoa, garbiagoa eta naturalagoa izateaz gain langabeziari aurre egitea eta ariketa egitea bultzatzea bezalako mesede asko dakartzala-eta erratzera bueltatzea ez dut eskatuko, noski. Ala bai? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Limoiondoa noiz inausi?

📌 Paki

Nik ez nuke inausiko. Inausketa behar bezala egi ezean fruitua atzeratu egingo duzu edota urte bat edo batzuetarako galdu. Inausi ezean landarea sanoago (zauririk gabe) eta loretarako begiak osatzeko indar handiagoz egongo da. Inausita lore eta fruitutarako kemena apaldu eta adar berriak sortuz lehengo forma berreskuratzeko grina piztuko diozu. Adarren bat kentzea behar beharrezkoa baduzu, enbarazu egiten duelako edo, martxoaren amaiera edo apirilaren aldera moztu.

Intxaurrondo injertatuak landatu nahi ditut pinua botatako lekuan. Muintegiko langile batek esan dit agian ez dela ideia ona. Lur azpian geratutako pinuen sustraien ondoren ondorioz edo... zez iritzi duzu?

📌 Irati

Nire ustez pinudia izan izan ez du eraginik. Hori baino garrantzitsuagoa da luraren izaera. Lur buztintsu eta astuna bada nik ez nuke intxaurrondorik jarriko. Buztinaren elastizitatearen eraginez sustriak hautsi egiten dira eta zauri horietatik sartuko dira onddoak. Beraz, arazoa ez da onddoak bertan izatea (lur guztietan gutxi edo gehiago daudenak) baizik eta zauriak sortzea. Intxaurrondoari urak erraz alde egiten dion lurra gustatzen zaio. ●

Bidali zure galdera:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus

ZUNBELTZ

BELAUNALDI BERRIAK LEHEN SEKTOREAN TREBATZEKO GUNEA URBASA-ANDIAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorean belaunaldien arteko errelebo falta da azken urteetan azaleratu den arazo nagusietako bat. Nafarroan, egoera horri aurre egiteko asmoz, proiektu berezi bat abiatu du Andia Mankomunitateak: Zunbeltz nekazaritzako test gunea. Hain zuzen, etorkizun hurbilean hasi nahi duten pertsonen haien abeltzaintzako proiektuetan trebatzeko espazioa eta azpiegiturak eskainiko dizkie egitasmoak. Ekoizpen ekologikoko Kontseiluaren, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Gobernuaren babesa ere jaso du proiektu pilotuak.

ZER DA TEST GUNE BAT?

Andia Mankomunitateko Edorta Lezaun presidenteak eta Elena Cereceda teknikariak eman dizkigute azalpenak: “Jendeak haien abeltzaintza proiektua frogatzeko esparru babestua da test gunea”, diote. Hiru esparrutan eskainiko die Zunbeltz espazioak babesa lehen sektorean trebatu nahi duten horiei: esparru fisikoan, legalean, eta formakuntzan.

Alde batetik, hasi nahi duten horiei proiektu batean sartu eta inbertsio handiak egin aurretik, lurra, azpiegitura eta tresneria eskuragarri utziko dizkie test guneak. Bestetik, Zunbeltz elkartearen bidez, erosketak eta salmentak modu



legalean egin ahal izango dituzte partaideek. Azkenik, formakuntzaren atalari dagokionez, aktiboan dauden abeltzainen tutoretza modukoa izanen dute. Proiektuan parte hartzen duen bakoitzak jarduera berean profesionalki diharduen tutore bat izanen du.

PROIEKTUA, ABIATZE FASEAN

Ipar Euskal Herriko Trebatu elkarteak eredutzat izan dute Andia Mankomunitateko kideek. “Frantziako Estatuan horrelako 60 bat esparru dituzte martxan. Espainiakoan, zortzi inguru ari dira presatzen, eta bakarra dago aktibo”, diote. Horiek guztiak RETA sarean daude bilduta, baita Zunbeltz bera ere. Nafarroako proiektu pilotu honetan, momentuz, abeltzaintzako proiektuek soilik dute lekua, baina aurrera begira, nekazaritzako egitasmoetara ere zabaltzeko asmoa azaldu dute bultzatzaileek.

Zein fasetan dagoen Zunbeltz? Bada, lehen pausoak ematen ari da, momentuz. Ukuilua eraikitzen ari dira, eta asteotan interesa duen jendearekin bilerak egiten ari dira. Datorren asteetan hasiko dira aukeraketa fasearekin. “Lauzpabost lagunek izanen dute Zunbeltzen trebatzeko aukera. Gainera, dinamizatzailer bat ere egonen da gunean, partaideak laguntzeko”. Aukeraketa prozesurako hainbat aldagai izanen dituzte kontuan: Andia Mankomunitateko bizilagunak izatea, formazio eta esperientzia edukitzea, generoa –emakumezkoek lehentasuna izanen dute–, adina –gazteek aukera gehiago–, eta proiektu kolektiboak izatea, besteak beste. Hori bai, Zunbeltzen parte hartzeko, abeltzaintzako ekoizpen eredu estentsibo eta ekologikoko proiektuak beharko dute izan. Informazio gehiagorako, Andia Mankomunitateko edozei udaletako webgunera jo dezake interesa duenak. ●



HEMEN DAGO NAFARROA





Ez dut nire pribilegioen biktimez mozorrotu nahi

Uxue Apaolaza

Hamar urtean zehar idatzitako bederatzi ipuin biltzen ditu Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasak* (Susa, 2021). Madrilen idatziak eta Madrilen girotuak dira, eta guztien atzean dago narratzaile berbera, zabuka dabilena etengabeko tentsio batean: gizarteak –edota bere idealek– ezarritako arauak bete behar ditu, baina ahuleziak gaingitzen du egunerokoan. Beharraren eta ahalaren artean sortzen diren gatazka moralek zeharkatzen dute liburua, bistan denez, inolako asmo eraikitzailearik gabe.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Ez dauka idazteko denborarik Uxue Apaolazak (Hernani, 1981), eta nahiz eta liburu aurkezpenetan sarri “idazle txanpiñoi” sentitu –bulegora dutxatu berri, alkandora plantxatuta eta tuperrarekin azaltzen diren gizonak dira “txanpiñoiak”–, argi dio: “Besteen denborarekin idatzi dut liburua hau”. Lanpostu finkorik gabe eta ume txikia zaindu behar, lagun baten aholkuari kasu egin eta Arabako Foru Aldundiaren Ignacio Aldecoa bekara aurkeztu zuen liburu proiektua. “Beka jasotzean idazteak lan kategoria hartu zuenez, mesedeak eskatzen has nintekeen”. Eta ordura arte lehen zirriborroan utzitako ipuinak berridazten hasi zen, egiturak fintzen, ahotsak bateratzen, ipuinen arteko loturak egiten, azken emaitzarekin gustura gelditu arte –edo editoreak “kito” esan arte–.

“Niretzat idaztea berridaztea da. Hasieran, lehen kolpe bat izaten da, irudi bat, eta susmo bat: hau ona izan daiteke,

eman dezake aukera anekdota batetik arnas sakonagoko zerbait ateratzeko. Gero hasten naiz lehen zirriborro hori moldatzen, moztzen, eta berridazketa prozesu horretan sortzen da ipuina”. Denbora tarte luzean idatzitako ipuinak direnez, bereziki tematu da bakoitza banaka lantzen: “Nahi nuen ipuin bakoitza izatea irakurgarria bere horretan. Bestela, loturak egiten hastean, beti egon daiteke tentazioa sartzeko ipuinen bat bestela agian sartuko ez zenukeena baina ingurukoekin zentzua daukana. Hori saihestu nahi nuen”. Lur izeneko narratzailearen ahotsak kontatzen ditu guztiak, eta hasieran monotonoegi izango ote zen kezka bazuen ere, saiatu da beste alderdi batzuetatik aniztasuna ematen: “Ipuinen forma landu dut, edota saiatu naiz ahotsa beti bera izan arren protagonista beti bera ez izaten”. Orain, liburua kalean delarik, ez da pertsonarik egokiena sentitzen hartaz hitz egiteko. “Liburu hau zer den kanpoko norbaitek

esan behar du. Edo irakurleak, edo kritikoak, baina nik ez”. Argitaratu duen idazleak zain geratu besterik ez daukala dio, zalantza nagusi batekin: “Literatura den dialogo honen mailan ote nago?”.

Hamar urtean zehar idatzitako bederatzi ipuinek osatzen dute *Bihurguneko nasa*, eta aldi luze hori gora-behera, badituzte antzeko ezaugarri batzuk. Narratzaileaz edo lokalizazioez gain –Madrilen kokatuta daude denak–, partekatzen dute ikuspegia ere, munduarekiko arrotzasun modukoa. Ipuin askotan, bestea mehatxua da, fidatzekoa ez dena.

Bai, badago arrotzasuna bestearekiko, edo familiarekiko, edo bere buruarekiko. Arrotzasuna izan daiteke auzi abstraktua eta filosofikoa, baina oso egoera konkretuetan gauzatzen da: askoz errazagoa da hemen arrotz sentitzea beltza bazara, edo homosexuala, edo emakumea, edo gizena, edo zaharra. Araua



betetzen ez duena errazago sentitzen da arrotz, eta baita erridikulu ere. Jauzi hori interesatzen zait: araua betetzen ez duenak ahalduztzean erridikulua egiten du. Gizon batek bizarra egitean aurpegian zauri bat egiten du eta lasai doa klasera. Aldiz, nik odola hankartearen baldin badaukat, erridikulua egingo dut. Oso ausarta izan behar da erridikuluari eusteko, epika guztiek behar dutelako publiko bat aurrez pixka bat gidatuta dagoena zurekin bat egiteko. Lur -narratzailea- joan-etorri horretan dabil: egin nahi luke erridikulua ekintza sublime eta iraultzaile bezala, baina askotan ez da ausartzen, ekintza iraultzaile bat testuinguru okerrean ekintza erridikulu bat delako. Pentsatzen du zer bait, eta egiten du kontrakoa.

Ez da gizarte arauekin bat egiteko gai, baina haiek betetzen ditu, ezinbestean.

Heldua izatearekin ere badauka zeri-kusia. Oraindik ere, 50 urteko umerik gabeko emakumea bazara ez zaituzte heldu-heldutzat hartuko, kontzertuetara joango zarelako, eta ez dituzulako beteko heldu baten ezaugarriak. Heldua nor da? Hipoteka eta lana daukana, ezkondata dagoena, umeak dauzkana. Nahi gabe, bestelako ereduak jotzen dira heldugabetzat, traukilagoak eta informalagoak iruditzen zaizkigulako. Lurrek galdetzen du une batean: noiz utziko diot neska izateari, emakume izateko? Nik 40 urte daukat eta oraindik neska deitzen didate, baina nabaritu dut umea eduki dudanetik helduagoa naizela zenbaiten begietara. Eta klasearekin, berdin: klase ertain delako fikzio horretatik behera baldin bazaude, aukera asko daukazku heldugabea izateko, jabetxeetara joan beharrean bokadilloak jango dituzulako, ez duzulako gustu garatu bat izango etxean jarri beharreko gortinen inguruan. Heldutasunak zerikusia dauka norma betetzearekin.

Arroztasun sentipen horrek zipriztintzen ditu Lurrek ingurukoekin dituen harremanak, gertukoenekin ere hautsi ezin den horma bat balu bezala.

Bai, eta beldurra, funtsean nahi duelako maitatua izan, eta besteek pentsatzea fundamentuzko norbait dela. Niri antzeko zerbaite gertatzen zait idazketarekin: asko beldurtzen nau nik idatzitakoa gertukoek irakurtzeak, iruditzen zaidalako ikusiko dutela nigan normalean ikusten



ez duten zerbaite gaiztoa edo txarra. Zeren ni ondo portatzen naiz, lanera joaten naiz, iritzi zuzenak daukat... eta pentsatzen ditudan gauza askorekin ez nago ados, baina pentsatzen ditut. Literaturara da niretzat alderdi horiek askatzeko lekua. Fikzioak ez du minik egiten, bakesa da zuretzat eta hartzailearentzat. Fikzioan ez duzu zerbaite baieztatzen, zerbaite planteatzen duzu. Ipuinak mozo-rrak dira, zure alderdiren bat askatzen laguntzen dizuten gezurrak, baina, hori eginez, inoiz baino egiatiagoa zara. Estetikak ezartzen dizkizun mugak askatasun espazioa dira beste inola esango ez duzun egia bat esateko, eta horregatik da idaztea hain estimulatzailea: mozo-rrak horrekin mugara eramane ditzakezulako eguneroko bizitzan esango eta egingo ez zenituzkeen gauzak.

Noski, badira sekula jarriko ez zenituzkeen mozo-rrak ere. Duela gutxi konturatu naiz gauza batez: liburuan ekintza oso arrazista bat ageri da, baina ez dago Lurren ahotsean, Leticia pertsonaiarenean baizik. Narratzailea ez den bati jarri diot asko mespretxatzen dudane ekintza bat. Mekanismo psikologiko bat izan dela uste dut, mozo-rra sarri izaten delako burla, edo kritika, edo satira. Niri asko molestatzen dit inauterietan gizonak emakumez janzten direnean, iruditzen zaidalako goitik behera barre

egiten digutela. Ez dut nire pribilegioen biktimizez mozo-rratu nahi: ezin naiz jarri errefuxiatu baten ahotan lehen pertsonan. Inbasore sentitzen naiz. Baina planteatuko dut klase ertaineko zuri batek zer kontraesan daukan errefuxiatu baten aurrean.

Fikzioan edozerk ez badu balio, non dago balio duenaren eta ez duenaren arteko muga?

Ez dakit. Baina bizi banaiz zure kontura irabazitako pribilegio batzuetatik, gero ni zure ahotik hizketan jartzea kasik li-zunkeria iruditzen zait. Hor muga oso garbia sentitzen dut. Ez dut esango gizonak ezin dutenik fikzioan emakumeen ahotik hitz egin, baina batzuetan -ahotsa protagonistarena denean batez ere- kirrinka egiten dit, agertzen garelako feminista perfektu bezala, edo...

Liburuaren aurkezpenean Ibon Egañak aipatu zuen zure literatura morala dela, baina ez moralista. Badago moralismoan ez erortzeko ahalegin kontzienterik?

Ateoa naiz, ez nago bataiatuta, baina oso pertsona morala naizela uste dut. Katoliko bati Jainkoak barkatzen dio, baina niri nork? Ez daukat autoritate legitimo bat, bakarrik nago neure buruarekin. Pentsatzen dut hori dela heldua izatea.

Gai bazara zeure buruari barkatzeko –ikasi beharreko kontua–, bada ondo. Baina ni ez naiz oso errukiorra neure buruarekin, eta Lur ere ez. Ahalegintzen naiz nire ipuinetan errietarik ez egiten, molestatzen didalako tonu horretan hitz egiten didatenean: “Benidormera joaten zarete beti udan!”. Bada bai, ez daukat furgonetarik Pirinioetara joateko. Orain pobreak joaten gara hoteletara, eta diru pixka bat daukanak furgoneta erosten du. Auzi horretan antidotoa da etengabe auto-errebisio bat egitea, auzitan jarritz norbere klasea, norbere jatorria... Errieta kanporantz beharrean, gogoeta morala barrurantz egitea –eta seguru norbait interpelatua sentituko dela–. Feminismoarekin koherente izanik sistema matxista batean bizi behar badut, agian ez naiz etxetik aterako, eta ateratzen bainaiz, sortuko zaizkit gatazka moralak eta kontraesanak. Klasearekin berdina: klase ertaina izan behar genuen –gure gurasoek sinetsi zuten fikzio hori–, eta prekaritatean gelditu gara. Halere po-breagoengana joatean “safari bizitza” egin dezakegu, gurasoen sostenguak ez digulako uzten erabat erortzen. Ipuinen alderdi polita hori da: artifizio estetiko batean gurutza ditzakezu halako dimentsio asko, anekdotatik haragoko kategoriarera eramanez.

Baina deus eraikitzaileak egiteko asmorik gabe.

Horretarako irakurlearen oso gainetik sentitu behar duzu, eta nik irudikatzen dudana irakurlea da ni baino askoz ere azkarragoa. Gainera, pentsatzen dut badaukala bere ideologia, badakiela zer iruditzen zaion ondo eta zer gaizki, sozialista den, feminista den, edo zer. Zaila zait ikasgaiak ematea, literatura erabiltzen dudalako justu kontrakorako. Niri interesatzen zaidan literatura ez da baieztapenak egiten dituen, diskurtso eginak eta kolektiboak ikuspegi indibidual batetik auzitan jartzen dituen baizik. Zeren diskurtso kolektibo horiek pertsona oso ahulen gainean sostengatzen dira egunerokoan. Banaka oso ahulak gara, biziraun behar dugulako nolabait. Ipuinak konplizitate deiak dira askotan: “Lagundu! Ulertzen dit norbaitek?”.

Literaturak arrakalak sortzen dituen, indibidualtasunetik egiten du?

Nire literatura indibiduala da, baina etengabe kolektiboarekin talkan dagoen indibidualtasun bat. Eta, nahi edo nahi

ez, hor politika dago beti, ez mezu politiko bat eman nahi dudalako, baizik eta pertsonaiak daukalako posizio bat, munduari begiratzeko modu bat. Diskurtsoak ematea ere ondo iruditzen zait: panfletoak asko gustatzen zaizkit, baina ez nire ipuinetan. Eta gero, primeran iruditzen zait jendeak kritika egitea ikuspegi feministatik, materialistatik edo estetikitik. Niri molestatzen dit idazleak esaten duenean bere liburua nola ulertu behar dudana, izan ahoz, izan testuan bertan. “Liburu hau feminista da”. Tira, esango dizut nik. Ez gara idazleok geure liburuaz hitz egiteko egokienak. Zuk irakurleari artifizio bat eskaintzen diozu, eta berak hortik jasotzen duena da gelditzen dena, ez besterik. Zein onak garen esaten duen literatura existitzea ondo iruditzen zait, baina niretzat idaztea ekintza egoista bat da: nire obsesioak kutsatu nahi ditut, eta konplizeak behar ditut –inguruan ez dauzkadanak–. Hortik ulertzen dut argitaratzea, adibidez: nire liburua izan dadila norbaiten konplize, baina ez zerbait erakusteko, baizik eta norbaitek sentitzeko: “hara, hau nire laguna da”.



Ekintza iraultzaile bat testuinguru okerrean ekintza erridikulu bat da”

Auzi moralak ere politikoak dira, zure ustez.

Hemen urte luzetan entzun da diskurtso bat: “Politika ez da morala, politika estrategia da”. Eta noski, aktibismoan zabiltzanean plangintza estrategiko bat eduki behar duzu, egia bat, diskurtso bat, sinesmen batzuk eta bide-orri bat. Baina estrategia kolektiboek norbanako asko uzten dituzte bidean, minduta, baztertuta, mila arrazoiengatik. Kolektiboak norbanakoarekin talka egitean gatazka morala sortzen da, eta niri hori interesatu zait betidanik, zer esanik ez literatura-rako. Bestalde, iruditzen zait estrategia kolektibo horiek fintzeko modu bat ere badela alderdi morala, eta horregatik ez zait batere gustatzen politika estrategia hutsa dela dioen diskurtso hori.

Era berean, ez da falta diskurtso moralistik politikaren.

Uste dut gatazka moralak testuinguratu daitezkeela. Norbaitek esaten duenean “lapurtzea gaizki dago”, bada ez. Kasuaren arabera, agian gaizki egongo da, baina absolutuki behintzat ez –ziur asko gehienetan ondo dago–. Horregatik diot literaturan arrakalak ireki nahi izateak ez duela esan nahi diskurtso hori ezeztatu nahi duzunik. Nik ez dut diskurtsorik ezeztatu nahi, zalantza-txo batzuk planteatu besterik ez. Azken batean, ipuinak idaztea “pijada” bat da. Mezu jakinak botatzeko, panfleto batean askoz garbiago esan ditzakezu. Literaturaren jokoan denbora galtzen baduzu, ez da soilik zure mezua interesgarria delako. Liburua argitaratzea erabaki nuenetik orain arte ez ditut mezuak landu; erritmoa, tentsioa, forma izan da berridatzi dudana. Literaturan hori da zentrala.

Hamasei urte dira Umeek gezurra esaten dutenetik argitaratu zenue-netik. Zertan aldatu da literatur mundua ordutik?

Idazten hasi nintzenean, ematen zuen nire balio bakarra zela emakumea izatea. Baina inor ez da idazle bakarrik zerbait izateagatik, ni idazlea naiz irakurlea naizelako. Orain idatzi ditudan gauza asko nesken gauzatxoak lirateke duela urte batzuk. Sartzeri iruditzen zitzaion auzi unibertsala zela bere eskua ezagutzen zuen ala ez, eta denoi interesatzen zitzaigula. Gure gauzak, aldiz, guri bakarrik. Emakumeok urte luzetan zehar ikasi genuen gizonak irakurtzen, eta orain pauso handi bat eman dugu: kontua ez da gizonak ikasi dutela emakumeak irakurtzen, baizik eta jada ez zaigula hainbeste axola. Ikusi da emakumeak ez direla nobela erromantikoak irakurtzera bakarrik dedikatzen; ahaldundutako irakurle kultuak dira. Lehen errazago mespretxa zitezkeen; orain kontuan hartu behar dira, eta idazten duzunean badakizu hor daudela.

Edonola ere, gure bilakaera ez da gurea bakarrik. Nik ezin badut idatzi Bukowskik idatzi ez balu bezala, egungo gizonak ezin dute idatzi Eider Rodriguezek edo Uxue Alberdik idatzi ez balute bezala, egun kanonean dauden bi aipatzeagatik. Feminismoa zentrala bihurtu da, ez literaturan bakarrik, gizartean ere bai. Ezin duzu saihestu, ezta gizona izanda ere. Dena zeharkatzen du. ●



LIBURUA

Akordatzzen



DANI BLANCO

GOGOAN DUT
ARITZ GALARRAGA
 PAMIELA, 2021

IGOR ESTANKONA

Nire bizitza osatzen dute bizitza guztiek: poetaren bizitzek” zioen Pablo Nerudak bizi izan zela aitortu zuenean (Seix Barral, 1974). Eta zer da Pamielaren Upaingo saila, poemak eta hibridoak eta oroitzapenak argitaratu daitezkeen saski-naski bat ez bada? Eta zer da *Gogoan dut*, lardaska ez bada, hari sentikor eta ikusezin batek airean doi-doi eutsia?

Ez dakit, egia esan, poesia den *Gogoan dut*, baina hala begitandu zait niri, halakotzat dut irakurri, eta gozatu ere bai irakurraldi bakar batean. Azertu eta akats guztiekin 80 eta 90eko hamarkada zailak gurutzatu genituenon lorratzen liburua da: “Gogoan dut Christina Roseninge”, edo “Gogoan dut zenbat polizia, bazter guztietan”.

Gu izan baikinenez Ez Dok Amairuren

eta Pott-en hilotzen pean loratzeko puntuan egon zen promesa herabea, eta hara non, jada memoriak idazten hasi garen: “Gogoan dut Swing taberna”, “Gogoan dut pasta gordinik jaten nuela”, “Gogoan dut ezagutu zintudanean beste batekin zenbiltzala”. Oroitzapen batzuk unibertsalak dira. Beste batzuk gureak bakarrik.

Aritz Galarragak elegantziaren eta patetismoaren arteko tonu eder egokia eman dio bere gogoratzeko ariketari, eta naturaltasunez egiten dio aurre etorkizunaren hutsuneari berari: “Gogoan dut dagoeneko ez naizena”. Liburu hau da malenkonia gabeko *saudade* bat, gezur-aitortze bat. Era horretan, letania honetako “gogoan dut” bakoitza autonomoa da eta oihartzun desberdina sor dezake gutako bakoitzarengan. Oro-

tzapen inozenteena izan daiteke denboraren puruz sakonena, eta gauza inoiz sakonek pisua galdu dezakete. Maitasun errekaduak daude hiru berbakoak, eta munduak daude hiru berbatan ebartzia. Aritz Galarragak badaki bere buzuaz barre egiten eta barre eginarazten bihotza negarrez den artean. Angeluko BAB2-ko ate zuriak, Itoizko rotaflexen tximista-txinpartak, Dogma 95... urteak ziren ez nintzela gogoratzeko Dogmaren ikaspenez, trukaje eta filtroak galarazita daudela. Eta hain zuzen trukaje eta filtro guztiak erabiliz idatzia da liburu hau. Distantziaren filtroa, ironiarena, elipsiarena... denak maneiatzen ditu bikain Aritz Galarragak egia esateko, bizi izan genuenean egia hartu genuen egia edo idealizatu hura esateko berriro. ●



MUSIKA

Sonoritateak menderatzen dituzten emakumeak



BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Günter Neuhold. **Bakarlaria:** Martina Filjak (pianoa). **Egitaraua:** Smyth, Saint-Saëns eta Txaikovsky-ren obrak. **Lekua:** Euskalduna Jauregia (Bilbo). **Data:** abenduaren 3a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Bilbao Orkestrak kontu handiz pentsatzen ditu bere abonuzikloan eskaintzen dituen programak. Azken hau ez zen salbuespena izan eta interes handiko hiru lanek osatu zuten, hainbat arrazoiengatik.

Bestalde, taldearen aurreko zuzendari titularrak, Günter Neuhold-ek, burututako zuzendaritza izan zen kontzertua arrakastara eraman zuen beste osagaie-tako bat. Zuzendaritza horretan, une oro, soinu zaindua, kontraste argiak eta, piano eta orkestrarako kontzertuaren kasuan, orkestraren eta bakarlariaren arteko el-karrizketa perfektua nagusitu ziren.

Kontzertua *On the cliffs of the Cornwall* pieza gozagarriarekin hasi zen, Ethel Smyth-ek konposatutako *The Wreckers* operaren bigarren ekitaldiaren prelu-dioa dena. XIX. eta XX. mendeen artean

bizi izan zen konpositore britainiarra musikari ona izateaz gain, lider sufragista ere izan zen. Lan asko konposatu zituen eta bere garaiko konpositoreek miretsi zuten bere obra. Bestalde, New Yorkeko Metropolitan-en bere operak antzeztea lortu zuen lehen emakumea izan zen. Bilbao Orkestrak konposizio horren zuku guztia ateratzen jakin zuen, obraren aberastasun tinbrikoa nabarmenduz.

Ondoren, Saint-Saëns-en 2. *piano eta orkestrarako kontzertua sol minorrekoa*, op. 27 interpretatu zuten; Martina Filjak kroaziar piano-jotzailea izan zen protagonista. Azken urteetako bakarlari onenetakoa dugu Filjak andrea. 2009ko Cleveland-eko Nazioarteko Piano Lehiaketa irabazi zuen eta pianoan soinu benetan eder eta pertsonalaren jabe da.

Oso modu delikatuan interpretatu zuen kontzertua, kristalezko soinu harrigarriz eta fraseatze gozo eta ederrez. Baina agian bere bertutean datza bere akats txikia. Interpretazioa pertsonala eta bikaina izan zela ukatu gabe, Filjak-ek alde eztsu samarra du, lehen mugimenduan gehiegizkoa, nire ikuspuntutik. Nolanahi ere, obraren bigarren eta hirugarren mugimendu zailetan segurtasun handia eta nagusitasun tekniko osoa erakutsi zuen. Gainera, Arvo Pärt estoniarraren pianorako pieza bat oparitu zigun, eta bakarlariak publikoa aho zabalik utzi zuen lortu zuen soinu hotz eta tindagarriarekin.

Egitaraua Txaikovsky-ren 5. Sinfonia indartsu eta bikainarekin amaitu zen, Neuhold-en batutak garbo eta irmotasunez eramana. Oso kontzertu ona. ●



Normaltasuna da zigorra

 XALBA RAMIREZ

Animalia batzuk dira. Hor buka daiteke kronika. Joseba Irazoki eta bere lagunak, JIEL bilakatu dira, eta sasoiko daude. Lagunak, jakina da, Ibai Gogortza gitarran, Jaime Nieto baxuan eta Felix Buff (bufffff) baterian dira. Aspaldi ikusi gabe laukotea, eta distortsioa zein garbi astintzen duten, dedio!

Haien lan berrian, sample eta midi batzuk prestatu dituzte zuzenekorako, egia esateko, asko eskaintzen ez dutenak. Nahikoa dute euren indar propioarekin. Soinu dotorea ateratzen dute den-deneke, eta aski bete kantaren frekuentzia guztiak.

Lan berriko errepertorio osoa eman dute, *Etorkizuneko nostalgia*, *Gizaki dependientea*, *Oro eta Egia eta gezurra* (hemen bai, sample eta bestelakoek kolorea gehitu dute). Aurreko lana

bezain leherkorra ez den arren, abiadura eta txinpartak mugitzen dituzte kanta guztiek. *Eta jackiek dio* "kanta lasaienak" ere, mugitzen zaitu barru-barruan.

Sicarioa afterrean dantzarako proposa dela ziurtatu du Irazokik. Pelax taldearen *Arerio* etorri zait gogora, erdi *broken beat* horrekin. Eserita egotea zaila izan da Olimporentzat –Usurbilgo pertsonaia ezagun horietako bat– eta, inbidia apur batekin ikusi dugu bere eromen puntua, zutitu eta dantzan jarri denean "zinbuluka, zanbulu".

Klimaxa bilatzeari ekin diote, eta etorri ere, etorri da *Zigorra* profetikoan: "Arauk onartu beharra da zigorra / ez isuna, ez kartzela / Burua makurtzea, arrazoia ematea / Men eta men egitea eta amen esatea. / Normaltasuna da zigorra".

JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

NOIZ: abenduak 12

NON: Usurbilgo Sutegi aretoa



Gogortzak eta Irazokik partekatu dute solo luze eta disonante bat, eta amaierako zati instrumentalean denek eman dute dena. Irazokiri kableak eutsi dio, urrunera zihoan bestela, bere tranztzean, "Joseba Irazoki Eta" akronimoa duen gitarra dotoreari konta ezinezko soinu eta zarata koloreak ateratzen.

Ibilbide luzeko taldeek badute erosotasunaren arrisku puntu bat. Taldeki-deak beste mila saltsatan dabiltzala eta, izan zitekeen sormen lasaiago baterako aitzakia. Inondik inora ere ez. Mugetaraino eramaten dituzte kantak, elektризitateari sua ateratzen. Lisabö-koei entzuna diet, ez direla inoiz izango Euskal Herriko talde gogokoenen zerrendan. Baina kontuz, Zappak zioen moduan: "Zure musikari gogokoenaren musikari gogokoenak dira". Normaltasunari ostikoka beti. ●



Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA MIREN AZKARATE BADIOLAK, MALETADUN HAURRAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	6			9		4	2	
4			8	2	3		7	6
5	2			4	1	8		9
9	7					6		3
		1			6			5
	4					9		
		4	7					
	9	6		1			5	
		3	4	6		1	9	8

ERRAZA


								9
	5		9			3	8	
	1			3	4	7	5	
					3			6
		5		9				
6		2	1					
5	4							
		7	5	8		4	6	
		1					7	8

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Itsaskor, likatsu. 2. Oinez mugitu.
3. Haur hizkeran, hortzak. 4. Ile-multzo trinko. 5. Zilarraren koloreko metal.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				F	I	T	I	A
2	E				R	I	T	U
3	A	N				A	M	A
4	B	E	H				I	N
5	A	Z	T	E				I
6	I	R	A	S	A			

EBAZPENAK

3	6	1	4	2	2	9	5	7	8
2	9	7	5	8	1	4	6	3	
5	4	8	3	6	7	2	9	1	
6	7	2	1	4	8	9	3	5	
1	3	5	2	9	6	7	5	4	7
9	8	4	7	5	3	1	2	6	
8	1	9	6	3	4	7	5	2	
7	5	6	9	1	2	3	8	4	
4	1	9	8	2	3	5	7	6	
3	6	8	5	9	7	4	2	1	

ERRAZA

ZAILA

HIZKI BERAK:
1. GRAFITIA, 2. EGARRITU, 3. ANAGRAMA, 4. BEHARGIN, 5. AZTERGAI, 6. IRASAGAR.

5XS:
1. LIKIN, 2. IBI, 3. KIKAK, 4. ILAJE, 5. NIKEL, 6. GISA, 7. EZ IZENIK, 8. EZ ABIZENIK, 9. BELTZAREKIN IRUDIKATU IZAN DIREN IHESLARIAK ETA DEPORTATUAK SILUETA IRUDITZEN ZITZAIDAN, URTEGAN

Jose Luis Garcia

SEXU HEZITZAILEA



HEZITZAILEEN HEZITZAILE

“Psikologian doktorea naiz, eta sexologian aditua. Bizi osoa daramat arlo horretan lanean, pasio handiz. 36 urtez Nafarroako Gobernuan aritu naiz, kontsulta kliniko publiko batean, arazo sexualekin lanean. Dibulgazio lan handia ere egin izan dut, liburuak argitaratu, irakatsi. Sexualitateari buruzko orri bat izan nuen *Egin-en*, eta kolaborazioak egin ditut beste hainbat hedabidetan ere. Tailerrak egiten ditut gurasoekin, baliabide zehatzak emateko, haien lana errazagoa izan dadin. Baina zaila da: latsa gailentzen da, eta amore ematen dute”.

“Gurasoek haurren etorkizun sexuala erabaki behar dute”

Amazonek haren dibulgazio lan bat erretiratu duenean azaldu da Jose Luis Garcia (Salamanca, Leon, 1955) komunikabideen lehen lerrora, baina hamarkadak daramatza sexualitatearen dibulgazioan. Haur eta gazteen pornografiaren kontsumoarekin arduratuta dabil, are gehiago Internetek eztanda egin ondotik. Haurrek pornoa ikusiko dutela onartuta, sexu heziketan eta bestelako ereduetan sakontzea ikusten du irtenbide bakararra.

✂ ANDER PEREZ 📺 JOSU SANTESTEBAN

Biribil diozu: “Zure seme-alabek pornoa ikusten dute”.

Hobe da hasieratik onartzea?

Ikerketen arabera, 6 urterekin hasten dira haurrak pornografia ikusten, eta zaila da pornorik sekula ikusi ez duen 18 urteko gazte bat topatzea. Nerabeen laurden batek, 18 urte betetzerako, 10.000 ordu kontsumitu ditu. Pornoaren kontsumoa orokortuta eta normalizatuta dago. Gurasoei esaten diet: “Zuen haurrek pornoa ikusiko dute, bai ala bai”. Eta gainera, porno bortitza da ikusten dutena, emakume eta adin txikikoengana-ko bortizkeria dosi handikoa. Hau erloju-bonba bat da, eztanda egingo diguna: sexu desira botere handiko motibazioa da gizakiarentzat, eta gaizki lantzen bada mina eta sufrimendua dakar. Gorantz doaz gazteen arteko sexu erasoak eta jokabide bortitzak. Eta ez da faktore bakararra, baina porno bortitzaren kontsumoa zuzenean dago lotuta horrekin.

Gizarte digitalak zerikusi du horretan, ezta?

Noski. Nire garaian pornografia ba-

zen, aldizkari pornoak poltsa opakutan zetozen, X zinemak zeuden, eta Canal Plusek pelikulak ematen zituen. Pornografia beti izan da: badira duela milioika urteko pinturak, gizakiak beti bilatu duelako estimulu sexuala. Teknikaren garapenarekin aldatzen joan da: inprentaren agerpena, argazkigintza, zinema... Baina oraingoa iraultza bat da. Internetek atea ireki du. Nik gurasoei esaten diet: Interneterako konexioa duen mugikor bat duen edozein haurrek bai ala bai egingo du topo pornoarekin, industriak aurreikusia duelako hori: algoritmoek gazteak bilatuko dituzte, ehizatze, kontsumitzaile eta menpeko egin daitezen. Mendekotasuna porno kontsumoaren ondorio nabarmenetako bat da, eta eragin handia du osasunean.

Ume pornografikoak kategoria darabilzu. Zeri deitzeko?

Ume pornografikoak sexua ia-ia porno bortitzaren bitartez bakarrik ikasi dutenak dira. Pornografiaren eragin boteretsuarekin kontrastatuko duen sexu heziketa falta da. Eta horrek ondorioak ditu: ume



"Interneterako konexioa duen mugikor bat duen edozein haurrek bai ala bai egingo du topo pornoarekin, industriak aurreikusia duelako hori: algoritmoek gazteak bilatuko dituzte, ehizatze, kontsumitzaile eta menpeko egin daitezen".

horiek, heldutan, trastorno emozional, afektibo eta sexualak izan ditzakete: mendekotasunak, sentikortasunarekin lotutako burmuin alterazioak, prostituzioaren kontsumoa, drogen eta alkoholen kontsumo handiagoa, eta, batez ere, adin baterako desgokiak diren praktika sexualak. Pornoak, jokabide gisara, sarketa baginala, anala eta aho-koa planteatzen ditu, txandaka, kondoirik gabe. Umeek gidaliburutzat hartzen dute, eta imitatzen saiatzen dira, hori delako haien eredu bakarra. Ondorioa: desastre bat.

Nola saihestu daiteke, saihestu badaiteke?

Saihestea oso zaila da, pornoaren industria oso boteretsua delako, eta ez dagoelako kontrolatzerik. Familiak eta eskola trebatzea da egin daitekeen bakarra. Pornoari konpetentzia egitea da erronka, eskaintzen dituen jarrera eta jokabideen bestelako eredia ematea. Gurasoek sexuaz modu positiboan hitz egin behar diete haurrei, osasunari, afektuei, ardurari eta elkarrekiko akordioari lotuz. Sexualitatea alderdi positiboa da, eta ez du zerikusirik biolentziarekin. Baina pornoak, sistematikoki, biolentzia eskaintzen du.

Gauza da gurasoek ez dutela hitz egiten. Zergatik?

Sexualitatea modu osasuntsuan hartze-ko gai izan ez den kultura batean bizi gara. Belaunaldiz belaunaldi, ahal izan duen moduan moldatu da bakoitza. Etxean ez da hitz egiten gazteei interesatzen zaizkien gaiez: sexu plazera, masturbazioa, pornoa. Gurasoek ez dakite zer egin, haiei ere ez dietelako erakutsi. Zaila da pornoarekin lehiatzea, plazer-er ematen duelako, eta plazer sexuala gakoa da hau guztia ulertzeko. Ikusten dutena indartzen du.

Badira beste mota bateko erresistentziak ere? Politikoak, esan dezagun.

Nafarroa plaza zaila da, sexu heziketa-rako eredu ezberdinak defendatzen dituzten taldeak daudelako, aurrez aurre. Eskolan eta familietan sexu heziketa zientifiko eta profesionalaz hitz egitearen kontra daudenek eredu tradizionala defendatzen dute: isiltasuna, bekatua, arriskua. Nik bereizketa egiten dut pelikula pornografiko eta erotikoen artean. Baina badago erabat kontra dauden taldeak (Eliza, eskuina, mugimendu feminista tradizionala...), eta edozein porno motaren alde daudenak (industria,

kontsumitzaileak, mugimendu feminista liberala, queer mugimendua...). Aurrez aurre daude, sexua nork kontrolatuko, eta ni tartean, alde guztietatik ostiak hartzen. Gizarte guztiak saiatu dira sexua zorrotz kontrolatzen, herritarrak kontrolatzeko. Gaur ere bada lehia hori. Bitartean, gure haurrek segitzen dute pornotik ikasten.

Porno onik ba al dago?

Eztabaida interesgarria da. Gizakiok estimulua behar dugu desira sexualerako, arrazoi biologikoengatik. Badira misio hori duten pelikula, liburu edo komiki mota batzuk, desira pizten dutenak. Ederki. Baina horrek ez du zerikusirik pelikula bortitz batekin. Hori tekila eta alkoholik gabeko garagardoa parekatzea bezala da. Niri ez zait pornografia hitza gustatzen, ideologikoki eta moralki kargatuta dago. Pelikula erotikoen eta eduki biolentia dutenen artean bereizten dut. Nerabezaroan normala da pornoa ikusten masturbatzea; behar badute badira beste baliabide batzuk, baina ez dezatela kontsumitu erabat matxista eta misoginoa den porno bortitz hori. Gurasoek dilema handi bat dute: edo pornoa, edo haiek. Haien haurren etorkizun sexuala erabaki behar dute. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Urkullu: “Munilla joatea arrazoi bat gehiago da mugikortasuna eta harremanak murrizteko”



Munilla Valentziara bidean lagun batekin.

“Elurra, kazkabarra, euria, argindarraren prezioa, autoentzako txip falta, Olentzero eta Maridomingi, nire besapeetako lurrina... guztiak dira arrazoi sendoak herritarrek mugikortasuna eta harremanak murrizteko”, adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak ETB1en, ikusle guztiek buruarekin baiezko keinua egiten zuten bitartean, lider gorenaren karismak limurturik. “Are gehiago, kontuan izanik José Ig-

nacio Munilla hurrengo aita santuak utzi egin gaituela. Zer arrazoi daukagu elkar ikusteko, elkar ukitzeko, batetik bestera mugitzeko, Munik utzitako hutsune existentzial honen erdian? Mesedez, geratu denok etxean eta piztu telebista, bereziki hark sendatu ezin izan zituen emakume eta elegeteku edo horiek, zeren eta Osakidetza ez dago prest zuek denok artatzeko”. ●

Eguneroko albo-kalte teknologikoak



SAREAN ARRANTZATUA

Euskaldunak gara behelaino artean



@ILTKHI | TWITTER

La Pau



@IZARODRIOZOLA | TWITTER



Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.
Xabier Ormaetxea Akizuk ilargiaren eragina eta saioak.
Pello Zabalak aukeratutako esaerak.
Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.

7€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

Jakoba Errekondok garaiko
uztak eta baratzea, fruitu arbolak
eta basoko lanak.

Pello Zabalak aukeratutako esaerak.

Xabier Ormaetxea Akizuk
ilargiaren eragina eta saioak.

Maria Thunen egutegi
biodinamikoarekin osatua.

Neurriak

Irekia: 480x340 mm.

Paretan eseki ahal izateko zuloa darama.



txikitik
eragiten!

azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



B A G I N E N B A G A R A

E M A K U M E A R T I S T A K :
IKUSGARRITASUN(EZ)AREN LOGIKAK
ERAKUSKETA

2021 - 11 - 27



2022 -03 - 13

SAN TELMO MUSEOA
DONOSTIA

ANTOLATZAILE:

LAGUNTZAILEAK:

ERAKUNDE BATESLEA:

PATRONO PRIBATUAK: